



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

7 | 2002
Numéro VII

Joannes Etxeberriren *Manual devotioezcoa- z*

Isaac Atutxa



Édition électronique

URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/972>

DOI : 10.4000/lapurdum.972

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 octobre 2002

Pagination : 57-91

ISBN : 2-86781-321-2

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Isaac Atutxa, « Joannes Etxeberriren *Manual devotioezcoa- z* », *Lapurdum* [Linean], 7 | 2002, Sarean emana-----an 01 juin 2009, kontsultatu 19 avril 2019. URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/972> ; DOI : 10.4000/lapurdum.972

Atutxa I. | IKER

Joannes Etxeberriren *Manual devotioñezcoa-z*

Isaac ATUTXA

Deustuko Unibertsitatean dotoregaia

0. Atarikoak

Jarraiko lerroetan Joannes Etxeberri Ziburukoak idatzi eta gurera heldu den lehen liburuaren aurkezpena egin nahi izan dugu. Liburua *Manual devotioñezcoa* da eta idazle honek idatzi eta argitaratu direnetan lehena dugu.¹

Mendeetan zehar, bi lekukotasun desberdin eman dira, 1627.ekoa lehena eta 1669.ekoa bigarrena.

Lantxo hau hiru atal nagusitan banatu dugu. Lehenean, lekukotasun desberdinen araketa sakona egiten da. Aurkitu ditugun lekukotasun hauen ale desberdin guztiak aztertu eta lortutako emaitzak eskaintzen ditugu.² Bigarren atalean, eskuartearen ditugun bi lekukotasunen erkaketari ekin diogu lekukotasun desberdinon filiazioa lortu nahian. Hirugarren atalean, azkenik, eta liburuaren lekukotasun desberdinak inprimatu ziren garaiak aintzat harturik, liburuak argia ikus zezanerako jarraitu behar zuen ibilbidea gogoan izaki, zenbait bitxikeria bibliografikoz aritu gara, liburuaren beraren egituraketari buruzkoa esaterako.

1. *Manual devotioñezcoaren* lekukotasun desberdinak³

1.1. *Zuzeneko tradizioa*

1.1.1. 1627 eta 1669.eko edizioak

Jusef Egiategi ziburutarra dugu, Etxeberri Ziburukoaren mendekideez aparte, honen liburuaren berri dakarren lehena.⁴

¹ Joannes Etxeberri Ziburukoaren hiru liburu inprimatu eman zaizkigu: *Manual devotioñezcoa* lehena, *Noelac* bigarrena eta *Eliçara erabiltececo liburua* hirugarrena.

Hiru liburuon xehetasun gehiago nahi duenak jo beza, esaterako, Vinsonen *Essai...*ra (1891-8), Patxi Altunaren *Manual devotioñezcoaren* edizio kritikora (1981) edo I. Atutxaren *Noelac*-i buruzko artikulura (1999) edo *Eliçarari* buruzkora (2001).

² Edozein testukritika liburutakoari jarraiki (guk J. Lakarraren "Testukritikaz: I. Stemmarantz" (1988) eta A. Blecuaren *Manual de crítica textual* (1988) lanak ditugu lagungarri), *recensioaren fontes criticae* fasean geundeke. Izan ere, fase honetan «argitaratzaileak iturri guztiak behar ditu ezagutu eta erabili bere lanean... Iturriez kanpo, argitaratzaileak ezin izango ditu ahaztu delako obra horren aurreko edizioak (baldin badira) edota hari buruzko ikerketak, bereziki testuari buruzkoak izaki (Lakarra, aip. lan.: 119).

³ Joseba Lakarrak dioenez (1988: 120) «testua gureganaino irits dakiguke: a) zuzenean edo zeharka, b) eskuizkribuz edo inprimaturik eta c) lekukotasun bakarrean edo gehiagotan». Gauza bera dio Alberto Blecuak bere *Manualean* (1987, 38): «Un texto ha podido llegar hasta nosotros a través de uno o más testimonios, en tradición directa o en tradición indirecta, es decir en citas de otros autores, fragmentos, en antologías, en refundiciones, en traducciones, etc., y en forma manuscrita o impresa o en ambas a la vez»

⁴ Bere *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekhieia* liburuan (1785. urtean argitaratua. Guk darabilgun argitarapena Txomin Peillenek prestatu eta Euskaltzaindiak 1983.ean argitaratua da. Orrialde aipamenak, beraz, edizio honi dagozkio.) Honela dio Egiategik 22. orrialdean: «Berze

Aita Larramendi da Etxeberriren liburuen berri dakarren hurrengoa. Bere *Arte* (1984: 374) eta *Diccionario Trilingüe* liburuetan (1853: xxxi), bietan dugu Etxeberriren lehen liburu honen berri. Ez du jartzen, ordea, zein argitarapenez mintzo den.

Wilhelm von Humboldtten aipamena ere hor dago (1816: 336): «*Manual devotioezcoa*. Eine Sammlung geistlicher Lieder, nebst einem Anhang von Gebethen im Labortanischen Dialekt. Bordeaux, 1669, 8».

Claudes-Charles Pierquin de Gembloux belgiar midikuaren lana izango da jarraian aztertuko duguna. Bere *Histoire Littéraire* liburuan (1858a: 7 gehigarrietan) *Manual*-aren berri izango dugu.

Bere *Bibliographie basque* liburuan (1858b: 7-8) ditugun datuak bat datoz aipatu dugun *Histoire*-ekoekin.⁵

Francisque Michelek ere ematen digu bere bi liburutan *Manual devotioezcoa*-ren berri. Honela dio *Proverbes basques d'Oihenart*-en (1847: xl):

VII. *Manual devocionczcoa, cdo czperen, oren oro escuetan erabilltçeco liburutchoa. Escarazco versutan egiña, eta guztia bi partetan bereçia...* Bordelen, Guillen Millanges, Erregueren imprimatçaillearenean. M.DC.XXVII. (*Manuel de dévotion, ou le petit vade-mecum de tout le monde, fait en vers basques et divisé en deux parties...* Bordeaux, Guillaume Millanges, imprimeur du roi, 1627.) In-8^a

libürü bat tritia diana Noelak ta berze Espiritual berriak, Baionan moldizkitatia, 1630. urthian, Joanes Etxeberri theologian dotoraren obra; ber ezkiribazaliak egin du ere berze libürü bat, *Hüskararen adretzaz*, mintzo dena». Txomin Peillenek ohar bat jarri du azken baitapen honen segidan: «Hüskararen adretzaz ez du Etxeberri teologoak idatzi, baina Etxeberri medikuak, Larramendik, azken horren eskuidazkia eskuen artean eduki baitzuen» dioena.

5 Baionako Euskal Museoa lortu ahal izan ditugu Pierquin de Gembloux-en bi liburuok. Lehena, 1841. urtekoaren berrargitarapen bat da; oso ongi gorde da urteetan zehar eta ez du orririk falta eta denak daude bere osotasunean. Bigarren liburua, aldiz, separata bat da. Azalak falta ditu eta norbaitek beranduago, kartulinaz berregin ditu. Aurreko azalean, erako aldean, eskuz idatziriko titulua eta gainontzekoak ageri dira; itzuliko aldean, beste eskuz idatziriko lerro hauek ditugu:

«La brochure donnée au Musée basque est une avec pagination spéciale, de l'ouvrage suivant: Histoire littéraire, // philologique // et // bibliographique // des Patois // et de l'utilité de leur étude // par // Pierquin de Gembloux
Nouvelle édition // suivri de la Bibliographie générale des phonopolismes basques.//
Paris // Auguste Aubry, libraire-éditeur // rue Dauppine 16 // 1858.
[in-8, 339 pages, imprimé à Bourges, chez P. A. Manceron]

Pierquin de Gembloux, né en Belgique, après avoir fait ses études de médecine en France, fut médecin d'un hôpital à Montpellier, puis il entra dans l'Université et devint inspecteur d'Académie à Macon, puis à Bourges.

Polygraphe abondant, il a écrit pour beaucoup de -----, livres et articles (médecine, archeologie, histoire, linguistique).

7.III.1933

Louis Lacroq
président de la société des
sciences archéologiques de la -----

de 138 pages, signées A-K, précédées d'un feuillet contenant le titre ci-dessus, et suivies d'un feuillet blanc.

La *licencia vicarii generalis* qui se trouve sur le recto du feuillet A, porte: «...manualis, Cantabrico carmine a Ioanne Etxheberri Doctore theologo compositi...» cette *licentia* est signée M. D'OIHARARD, *vicarius generalis*.

La première partie de cet ouvrage renferme, en vers de huit syllabes, les principaux mystères de la vie de Jésus-Christ; la seconde partie, également consacrée à des sujets de piété, est en grand vers de quatorze syllabes. Elle est intitulée: *Bigarren luburua guiristinoac erran behar lituzqueen othoitzez...* Bordelen, Guillen Millanges Erregueren Imprimatçaillearenan. M.DC.XXXVII. (*Deuxième livre des prières que le chrétien devrait lire...* A Bourdeaux, chez Guillaume Millanges, imprimeur du roi, 1627.) De 208 pages, le titre compris; puis viennent quatre feuillets contenant la table des deux parties. La seconde porte les signatures A-N, et la table la signature O.⁶

Michelen *Le Pays basque* liburuan ere (1857: 487-8) *Manual*-aren lehen argitarapenaren aipamen berbera dugu. Bietan dio lehen argitarapen honen berria Aita Larramendirenetik jaso duela, baina azken hau izenburuen aipamenetan gelditzen da gehienetan.

Les proverbes basques-en ere (1847: xlvj) bigarren argitarapenaren berri dugu. Bordelen, J. Mongiron Millangesen inprimatua, in 8^o itxurakoa dela diosku.

Michel alde batera utzi eta jarrai dezagun J. Vinsonekin. Bere *Essai...*-n *Manual devotioenezcoa*-ren bi argitarapen aipamena aurki genezake (1891-8: 65-67):

"14a.-MANVAL | DEVOTIONEZCOA, | EDO EZPEREN OREN | ORO ESCVETAN ERABILLT-- | çeco liburutchoa. | *Ejçurazco verfu tan eguiña, eta guztia | bi partetan bereçia.* | Lehenean iracasten direla, Guirifiño | Commun batec, iaquiñ behar dituen | Gauça guchienac: berçean, errateco | Lituquen, halaber othoitç guchienac.[...]
BORDELEN, | GVILLEN MILLANGES Erregueren | Imprimatçaillearenan. | - | M. DC. XXXVII."

Argitarapen honen garaian, Bordele zen liburuak inprimatzeko lekurik hurbilena. Baionako lehen moldiztegia François Bourdot-ena da, 1642.ekoa. Eta Paben Desbarats sendia 1655.az gozotik baino ez da hasten inprimatze lanetan.

Lehen argitarapen hau in-8 itxurakoa da (16 orrialde pleguko), guztira 346 orrialde idatzi dituela. Bere neurriak honakook dira: 101 mm x 167. Testuak berak 82mm 5 x 149,5 (izenburu eta zeinadurak barne).

"14b.-MANVAL | DEVOTIONEZCOA, | EDO EZPEREN OREN | ORO ESCVETAN ERABILLT- | çeco liburutchoa. | *Ejçurazco verfutun eguiña, eta guztia | bi partetan bereçia.* | Lehenean iracasten direla, Guirifiño | Commun batec, iaquiñ behar dituen | Gauça guchienac: berçean, errateco | Lituquen, halaber othoitç guchienac.[...]
BORDELEN, | I. MONGIRON MILLANGES Erregueren | Imprimatçaillearenan. | - | M. DC. LXXIX."

6 Arestian jarri dugun Pierquin de Gembloux-en aipamena eta honen ondoan pentsa liteke, gurera inprimaturik heldu diren bi lekukotasunez gain *Manualeko* bi atal desberdin, bakoitza bere aldetik inprimatuak, eman izan direla. Pierquin de Gembloux-ek, 1627.eko argitarapenez mintzo dela, lehen atala in-f itxurakoa dela dioen bitartean, bigarrena in-8-kotzat du. Michelek bi liburu bailiran aipatzen ditu.

Litekeena da Iacobe Mongiron Milangesek lehenaz baliaturik egin izana berrargitarapen hau. In-8 itxurakoa hau ere, foleo erdiz eratua (8 orrialde pleguko).

Neurriak: testuak 88 mm 5 x 152,5, izenburu eta zeinadurak bame. Zeinadura sistema: 1627.eko argitarapenak A p. 1, B p. 17, C p. 33, e.a., K p. 137-ra arte; bigarren liburuak: A p. 1, B p. 17, e.a., O 208. orrialdean. 1669.eko argitarapenak: A p. 1, B p. 9, C p. 17, D p. 25, e.a., S p. 137-ra arte; bigarren liburuan: A p. 1, B p. 9, e.a., eta Cc p. 207.

Ibilbide honetan aurrera egin eta aipa dezagun Genaro de Sorarrain jaunaren *Catálogo de obras euskaras* liburuan ere (1898: 46-47) aurkitu ahal izango dugula Etxeberriren liburu honen aipamenik. Vinson jauna jarraitzen duelako susmoa dugu, ordea, eta bildu dituen datu guztiak *Essai...*-n aurkitu dituela.

Louis Desgraves jaunak, bere *Les livres imprimés a Bordeaux au XVII^e siècle* liburuan, *Manual devotioñezcoa*-ren bi argitarapenen berri dakar. 1627. urteko argitarapena bere liburuko 588. zenbakidunari dagokio (1971: 92), erakusten diguna aipamen bibliografikoa besterik ez dela. Vinsonen *Essai...*-n edan du eta ale bat Pariseko Bibliothèqve National-en dagoela dio (D. 33.877). 1.346. zenbakia duen aipamenean aurkituko dugu 1669.eko argitarapenaren berri. Kasu honetan ere, Vinsonen *Essai...*-n edan du eta Bordeleko Herri Liburutegian ale ezoso bat dagoela esaten zaigu (PF. 16.185 Rés.).

Hordago Publikapenak etxea 1669.eko edizio honetaz baliatu zen argitarapen xerokopiatu bat egiteko.⁷

Patxi Altunak, azkenik, *Manual devotioñezcoa* honen lehen liburua edizio kritikoa paratu zuen 1981.ean, Hordagoren argitarapenaz baliatuz.

Ezin izan zuen Altuna jaunak lehen argitarapeneko alerik aurkitu, batez ere 1669.ekoan 3.438. bertsorearen inguruan bertso batzuk falta zitezkeen, berak uste bezala, edo ez jakiteko.

Patxi Altunaren uste honek bultzatua bibliografia irakurtzen hasi ginen. Vinson-en *Essai...* liburuan (1891-8: 65) 1627.eko ale bat Pariseko Bibliothèqve Nationale-n zegoela irakurri ahal izan genuen eta, aipatu bezala, Deustuko Unibertsitateko Eusko Ikaskuntzako Karmele Santamariari esker lortu genuen lehen argitarapen honen mikrofilmaren fotokopia.

Bi argitarapenen arteko konparaketak zera erakutsi digu, Patxi Altunak aipatzen dituen bertso hauetan («Egoquien Aingueru beguirailleei» izenburua duten 3.427-3.442 bitartekoak) 1669.eko argitarapena lerroz dagokiola

7 «Euskal klasikoak» bilduma argitaratzen hasi zen Hordago Publikapenak etxea 1978.ean, eta Joanes Etxeberriren *Manual devotioñezcoa* dugu bilduma honetako lehen liburua. Honako hau litzateko aipamen bibliografikoa:

HORDAGO PUBLIKAPENAK, 1978, *Manual devotioñezcoa edo ezperen oren oro escuetan errabillitçeco liburutchoa*. Etxeberri Joannes, Editorial Lur, Donostia.

1627.ekoari. Ez du horrek esan nahi, ordea, bertso batzuk ezin falta daitezkeenik. Are, 1669.eko argitarapena kaleratzeko aurrekoaz baliatu izan balitz Mongiron Millanges (eta hau geuk proposatutako hipotesi bat besterik ez da) ez zegokeen bigarrenean lehenean ez dagoen bertsorik.

Bertsoon kontua alde batera utzita, zera aipatu nahi genuke *Manual devotioenezcoa-z*, Axular eta Gillentena Itxasuko erretorak ontzat emana, baietsia dela.

Bikario Jenerala zen Oiharard jaunaren baimena (latinez) urte eta hilabete bereko 28koa da, Baionan emana. Gero Gillentena beraren, Hegi eta Stefano Hirigoitiren laudoriozko bertso batzuk datoz, azken bi hauenak ere latinez daudelarik.

Izan dugu Hordago argitaletxearen edizioaren ale baten eta Chicagoko Newberry Library-tik bidali diguten 1669.eko argitarapen honen beste ale baten fotokopiak konparatzeko aukera eta konparaketa honek ez digu gauza adierazgarri garrantzitsuegirik erakutsi. Hau da bi aleon azaleko konparaketaren ondorena:

<i>Manual devotioenezcoa</i> -ren 1669.eko edizioa	
Hordagoren argitarapena	Chicagoko argitarapena
Lehen liburua	
<ul style="list-style-type: none"> ↪ 8. or.: Ez dago orrialde zenbakirik ↪ 9. or.: L zeinadura ↪ 41. or.: Ez dago orrialde zenbakirik ↪ 49. or.: Ez dago zeinadurarik ↪ 63. or.: Orrialde zenbakia falta da ↪ 67. or.: Orrialde zenbakia falta da ↪ 80. or.: Bi edizioetan Ona deia agertzen da, baina hurrengo orrialdeko lehen bertsoa «<i>Ecen guztiak ...</i>» hasten da. Bigarren bertsoa hasten da «<i>Ona pena...</i>» ↪ 112. or.: E deia ↪ 121. or.: Ez dago zeinadurarik 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ 8 orrialde zenbakia ↪ B zeinadura (hau da zuzena) ↪ 4 zenbakia ageri da ↪ G zeinadura ↪ 63 orrialde zenbakia ↪ 67 orrialde zenbakia ↪ Eta deia ↪ Q zeinadura
Bigarren liburua	
<ul style="list-style-type: none"> ↪ 4. or.: Buruz bera dago orrialdeko izenburua ↪ 7. or.: Ez dago zeinadurarik ↪ 9. or.: B zeinadura ↪ 35. or.: C₃ zeinadura ↪ 46. or.: BVR deia ↪ 65. or.: I₂ zeinadura ↪ 81. or.: L zeinadura ↪ 84. or.: 84 orrialde zenbakia (zuzena) ↪ 94. or.: Ez dago deirik ↪ 127. or.: Ez dago zeinadurarik ↪ 129. or.: Ez dago zeinadurarik ↪ 136. or.: 136 orrialde zenbakia ↪ 142. or.: Ez dago deirik ↪ 158. or.: Ez dago deirik ↪ 199. or.: B zeinadura (zuzena) 	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Normal dago ↪ B zeinadura ↪ B₂ zeinadura (hau da zuzena) ↪ E₃ zeinadura (hau da zuzena) ↪ BVRV deia ↪ Ez dago zeinadurarik ↪ L₂ zeinadura ↪ 4 orrialde zenbakia ↪ Bercea deia ↪ Q zeinadura ↪ Q₂ zeinadura ↪ Bat zenbakia gorantz a igona ↪ Hirur deia ↪ Vr deia ↪ Bb zeinadura

3.1.2. Zeharkako tradizioa

Jon Bilbao jaunaren bibliografia izan dugu lagungarri (1973: 256) urteotan zehar argitaratu diren bertso sortak bildu ahal izateko. Baina, Bilbao jaunak egin duen aipamenetarik bat ez da zuzenegia: "Axular aiphatu behar litekela". *Gure Herria*, 1930, X, 254-256». Artikulu honetan azaltzen zaigun testua (hitz lauz idatzia) ez da *Noelac*-en atala; are, ez dagokio Etcheberri Ziburukoari, Sarakoari baizik. Bestalde, Jon Bilbao jaunak «Balea zaleen othoitzak», «Haur Hipientzat», «Herioa», «Itsasturi» eta «Manuel devotioenezcoa» bertso sortak *Noelac*-en partean barnean sailkatu ditu, *Manual devotioenezcoa*-ren atalak izaki.

Argi dago, bestalde, ez dela ez *Manuel devotioenezcoa* (*Manual* da zuzena)⁸ ezta «Haur Hipientzat» («Ttipientzat», kasu honetan).

3.1.2.1. Aita Larramendiren «Arte»-a

Aita Larramendik bere *Arte*-an (1984: 378) *Manual devotioenezcoa* liburutik jasotako bertso sorta bat du. Ez dakar izenbururik, baina badakigu nondik hartua den. Bi bertso sorta dira jatorrizko testuan. Biak daude *Manual*-aren lehen liburua *Doctrina Christiana* lehen partean; eta elkarren segidan datozkigu. Lehenaren izenburua «Laudatcen da oraiño eman tuen hamar manuez» da (Etcheberri, 1627: 12); 14 bertso dira, Larramendik bere lanera ekarri dituen lehen hamalauak; ondoko bertso sortaren izenburua «Bi manu Principalenac» da (aip. lan. eta or.), 12 bertsoz osotua. Larramendik lehen laurak baizik ez ditu jarri. Hona hemen bere *Arte*-an jarri dituen guztiak:

- 1 Zuré leguéac háuchec dire, Sinaico mendían
Berce ordúz Moifen emánac Arabián.
Jainco bat onétl-ezác, ctá adóra devotqui,
Etá arén icenáz ez ciñic eguín vanoqui.
- 5 Gueiágo beguirázac igandéa fainduquí,
Eta burafóac ondrá, bicí-adín lucequí.
Nihór hill eztezaquelá, ez bihotzéz gaitzetí,
Ecén vengántzen Jaincoá ni behár nauc finctí.
Paillardizá iguinarí eguióquec ihesá,
- 10 Guztíz ere ez defirá lagunarán Espolá.
Bercerén oná hain gutí beharco-dúc iduquí,
Guztíz ere hauzoarén ontafuná ez uquí.
Fiñeán mihiarí emóc guardiá, eztén guezurtí,
Eta aicén, fallferia iráuztera, beldurtí.
- 15 Hauc bi manaméndutara biltzen dítuc laburquí,
Céñac gogoán har ahal baitatzáquec errazquí.
Jainco bat onetl-ezác gauzá guztién gañetic,
Eta Christau laguná ez heronéz beheretíc.

⁸ Akats hau beste zenbait tokitan ere ikusi ahal izan dut. Luis Mari Mujikak bere *Historia de la literatura euskérica* liburuan (1979: 115-124) lau aldiz jarri digu 'Manuel', hiru 'Manual'. *Deia* egunkariak, bestalde, «Itsas bazterrak» bilduma plazaratu zuen 1992.ean, igandeetako zenbait egunkarirekin batera. 3. alean, bigarren orrialdean, Iparraldeko itsas gizonez mintzo dela, aurkezpen moduan, aipamen hau dugu:

«Nosotros por la vida arriesgamos la vida»
«Biziaren gati dugu hirtscatzen bizia»
Joanes Etcheberri. Manuel Devotioenezcoa

Bokal arteko Π bikoitza bakan jarri du: 'ihefa' (9), 'Espofa' (10), 'ontafuna' (12); *Manual*-ean dugun zenbait h ez dator Larramendiren testuan: 'arén' (4), 'iguinari' (9), 'finetfi' (8). 3 eta 17 lerroetan, 'Jainco' jarri du Larramendik; *Manual*-ean 'longoico'. Sudurkarietan ere aldea dugu: 'fainduqui' (5), 'Ceñac' (16), Larramendik; 'fañduqui/faiñduqui', 'Ceñac', Etxeberrik.

Larramendiren bertsoetan gaizki transkribatutako hitz bat dugu: 'Moifen' (2). Etxeberrirenean 'Moiferi' dugu.

Hauek dira, oro har, Etxeberriren bertsoak eta Larramendik ezarrikoeen arteko konparaketak erakutsi dizkigun desberdintasunik nabarienak.

1.2.2. «Gure Herria» (1)

Gure Herria aldizkariak (1921a: 192) Joanes Etxeberriren *Manual*-aren bertso sorta bat du, «ITSASTVRI. Iracurtzailleari Abisua» izendatua. Hamabost silabatako 26 bertso dira elkarren segidako hoskidetasuna gordetzen dutelarik. Gure ustez, bertso sorta hau *Manual devotioenezcoa*-ren bigarren argitarapenetik hartua da eta ez lehenetik; hauek dira baieztapen hau indartzen duten arrazoiak:

1) Lehen argitarapenean çe, çi, tçe, tçi ditugu; bigarreanean eta azertzen dihardugun testu honetan ce, ci, tce, tci.

2) 1627.eko argitarapenean 'cantatu' (3) dugu; 1669.ekoan 'çantatu', testu honetan bezala.

3) 1627.eko argitarapenean 'choll' (5), 'choll' (9) dugu; beste bietan 'choill' eta 'choll'.

Arrazoi hauengatik, bada, bidezko dirudi *Gure Herria* 1669.eko argitarapenez baliatu zela baieztatzea.

Zera aipatu, bestalde, hitzez hitz dagokiola *Gure Herria*-ko testua 1669.eko argitarapenari, bi hitz hautan salbu: lehen lerroan 'deuotionea' dugu *Manual*-ean; bertso sorta honetan 'deutionea' (o bokalea ahantzia, nonbait). Bigarren lerroan, 'Errefauac' dugu *Manual*-ean; 'Errefauae' bertso sorta honetan.

1.2.3. «Gure Herria» (2)

Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioenezcoa* liburutik jasotako beste bertso sorta bat ezarri zuen *Gure Herria*-k aipatu berri dugun ale berebean (1921b: 492-493). Bertso sorta hau *Manual devotioenezcoa*-ren bigarren liburuan dago (1669: 155-156), «*Isfaffoco viayetaco othoitçac*» atalean; IX. burua da eta bere izenburua «Arrantçale particularen othoitçac». Lau ahapaldi dira, 6, 8, 12, 14 bertsoakoak, hurrenez hurren. Denak 15 silabatakoak, elkarren segidako hoskidetasuna gordez. *Gure Herria*-k «Manual devotioenezcoa» izenburupean bildu ditu lau ahapaldiok.

Bertsoon amaierako oharra dioenez, 1669.eko argitarapenez baliatu dira eta zera esan behar dut, hitzez hitz dagokiola *Gure Herria*-ko testua 1669.eko edizioari.

Hordago argitaletxea ere urte honetako ale batez baliatu zen edizio faksimila argitaratzeko. Konparatu ditugu *Gure Herria*-koa eta Hordagoren testua eta desberdintasun gutxi batzu besterik ez ditugu eriden:

<i>Gure Herria</i>	Hordago
<i>Arraiu</i>	<i>Arrain</i>
Iefus-Crift	Iefus-Christ
bildaduric	bidalduric
hiltceco	hilltceco
lehorretaric	lehorreraric
gnri	guri

Baliteke, haatik, aldakiok *Gure Herria*-k erabili duen 1669.eko alean bertan agertzea ikusiko baitugu, tesian zehar, edizo berbereko ale desberdinen artean maiz gertatzen direla honelako aldakiak.

1.2.4. «Gure Herria» (3)

Gure Herria-n (1922: 391), *Manual devotioenezcoa*-tik jasotako beste bertso sorta bat ere agertu zen: HERIOA izenburupean jarri zutena.

Lehen liburuko bigarren partearen 1. buruaren ataltxo bat da eta, izenburuak berak dioenez, herioaz mintzo da. Hiru ahapaldi dira, hamabost silabatako zortzina bertsoak. Bertso sorta honen amaieran ere 1669.eko argitarapenetik hartua dela dio eta Hordagoren edizioarekiko konparaketak zera erakutsi digu, hitz bakarrean izan ezik, hitzez hitz dagokiola *Gure Herria*-koa 1669.ekoari. Hitz hori bigarren bertso sortako (*Atcematen du* izenburua duena) 6. bertso 'açarcacaten' da. *Gure Herria*-n 'atçarcacaten' transkribatu dute, baina hemen ere kontuan hartzekoa liteke aurreko ataleko oharra.

1.2.5. «Gure Herria» (4)

Gure Herria-k, azkenik, *Manual devotioenezcoa*-tik hartutako beste bi bertso sorta jarri ditu (1929: 158-161). Oraingo honetako bertsoen prestatzailea Piarres Lafitte izan daiteke, bertso hauek beraiek ageri baitira *Euskaldunen lorategia*-n (1931: 22-25).

Lafittek aukeratu dituen bertsoak «Balea zaleen othoitzak» eta «Haur tti-pientzat» izenburupean bilduak dira. Lehen bertso sortan hiru ahapaldi dira, 8, 12, 14 bertsoak, hurrenez hurren. Guztira, 15 silabatako 34 bertso. Bigarren bertso sortan beste hiru ahapaldi, 8, 6, 18 bertsoak. Oraingo honetan, bada, 15 silabatako 32 bertso.

«Balea zaleen othoitzak» izenburupeko bertso sorta *Gure Herria*-k 1921. urtean «Manual devotioenezcoa» izenburupean bildu eta arestian aipatu berbera da. Lafitte jaunak, baina, ez du 6 bertsoak lehen ahapaldia jarri. Grafia modernoz daude idatziak, jatorrizko testua gorde eta aldaketarik gabe.

1.2.6. Aita Onaindiaren «Mila euskal-olerki eder»

Argi dago mila olerki eder biltzen dituen liburu batean Joanes Etxeberri Ziburukoaren bertsoek tokia izan behar dutela. Eta ez digu, ez, Aita Onaindiak hutsik egin honetan. Bere *Mila euskal-olerki eder* liburuan (1954: 196-199) *Manual devotioenezcoa*-tik jasotako hiru bertso sorta agerrarazi ditu.

Gure ustez, Aita Onaindiak ez du *Manual*-ean edan, beranduago, mende honetan, *Gure Herria*-n edo *Euskaldunen lorategia*-n agertu diren bertso sortetan baizik. *Mila euskal-olerki eder* liburuan ditugun *Manual*-eko bertso sortak hiru dira, «Herioa», «Balea zaleen otoitzak» eta «Haur ttipientzat». Ikusi dugu «Herioa» bertso sorta *Gure Herria*-n agertu zela 1922.ean. Eta «Herioa» izenburua aldizkarian jarri diote, bertsook, herioaz mintzo diren arren, ez baitaude izenburu honen azpian bilduak *Manual devotioenezcoa*-n. Aita Onaindiak ere «Herioa» izenburupean bildu baditu, iturria *Gure Herria* izan da eta ez *Manual*-a bera. Gauza bera gertatzen da bigarren eta hirugarren bertso sortekin.

Aita Onaindiak ere grafia modernoa erabili du, Aita Lafitte jarraituz. Harek, haatik, 'leku', 'bekokia', 'nai', 'ikaritzen', 'artikitzen' darabiltza 'lekhu', 'bekhoquia', 'nahi', 'ikharatcen', 'arthiquitcen' hitzen tokian. Are, 'll', 'ñ', 'rr' ren tokian forma bakunak darabiltza, gaineak azento marka jarrita.

1.2.7. Mariano Ciriquiain-Gaiztarro

Mariano Ciriquiain-Gaiztarrok *Los vascos en la pesca de la ballena* liburuan (1961: 19-20) *Manual devotioenezcoa*-ko bertso batzuk ditu. Bertsook aurrerago ikusi ditugun «Balea zaleen othoitzak» dira. Honela diosku:

Ioannes Etcheverri, uno de los mejores escritores eusquéricos, escribió en el año 1627, unas oraciones bellísimas, la «Oración de los balleneros», la «Oración de la ballena arponeada» y la «Oración de la ballena muerta» que merecen que las transcribamos tanto por su singular encanto poético como porque ponen de manifiesto la grandeza de la empresa que nos ocupa.

Badirudi, bada, hitz hauen ondoren jarri dituen bertsoak 1627.eko argitarapenetik dituela hartuak. Baina ez, hau ez da honela. Berak erabili duen iturria 1669.eko edizioa da, bigarrena, eta ez lehena. Bata edo bestea erabili, bi akats daude Ciriquiain-Gaiztarroren bertsoetan, *Manual*-ean agertzen ez direnak. Lehen bertso sortan, 3. bertsoan, 'erakharracia' transkribatu du, *Manual*-ean 'erakharracia' dugunean. Hirugarren bertso sortan ezarri dituen azken hiru bertsoak hauek dira:

«Lehorrera dakhar quegu eguiñic sarrasquia,
Bici dugu naturaren miraculluz bazterra,
Oharatcen (longoicoa) çuc duçula esquerria.»

Manual-ean, aldiz, honako lau bertsook ditugu:

«Lehorrera dakhar quegu eguiñic farrafquia,
Bici cela aztaparras cebillan ihicia.
Hala dugu naturaren miraculluz bazterra,
Ohoratcen (longoicoa) çuc duçula elquerria.»

Argi dago, bada, lerro batetik bestera pasatu dela transkribatzean.

Aipatu berri dugu gure ustez berak erabili duen iturria 1669.eko argitarapena dela eta ez 1627.ekoa. Jarraiko laukiak erakutsiko du hau:

Bertso sorta	Bertso zenb.	1627.eko argitarapena	1669.eko argitarapena	Ciriquiain- Gaiztarro
		çe, çi, tçe, tçi	ce, ci, tce, tci	
1	8	haren guelditçeco	Harenguelditçeco	
2	12	dieçaguçu	Dieçaguçu	
3	1	laudorioac	Laudorioa	
3	7	etfaja	Etfajac	etsajac ⁹

Ez dugu uste, bada, oker haundirik egiten dugunik Ciriquiain-Gaiztarroren iturria 1669.eko argitarapena izan dela baieztatzen dugunean.

1.2.8. Karmelo Etxenagusia

Karmelo Etxenagusiak ere baditu bere *Iparraldeko Euskal Idazleak* liburuan (1981: 62-64) *Manual*-etik jasotako zenbait bertso. Berak dioenez, erabili duen iturria 1669.eko argitarapena izan da. Bertsook, *Manual*-eko lehen liburuaren bigarren parteko I burutik hartuak dira. Buru honek «Herioaz, ea çer den?» du eta K. Etxenagusiak ere «Herioaz ea zer den» izendatu du.

Lehen buru honek 17 ahalpaldi edo bertso atal ditu. Etxenagusia jaunak 5-10 bitartekoak jarri ditu. Guztira 52 bertso. Grafia modernoa erabili du kasu honetan.

1.2.9. «Hangaia»-ren bertsoak

Ez genuen *Manual*-ari dagozkion zeharkako tradizioz heldutako testuei eskaini diogun tartetxo hau amaitutzat eman nahi zenbaiten ahotan erabiliak izan diren bi bertsoen kontua aipatu gabe. Bigarren liburuko «*Balea hill ondoco esquerrac*» bertso sortaren laugarren distikoa (7 eta 8. bertsoak) da. Hona hemen bertso sorta hori osatzen duten zazpi distikoak (Etcheberri, 1627: II, 158):

- Balea hill ondoco esquerrac.
- 1 Iauna, dituçula efquer, eta laudorioac,
Million eta million baño guchiagoac.
Çeren eguiñ darocuğun liberalqui gratia,
Idequitçeco handien arrañari biçia.
- 5 Gure indarrac etçiren deus hunenen aldean,
Çure fauoria dugu fentitu combatean.
Eçen çure baithan iturroñ batec etfaja,
Vrrutic içi deçan nahiz dela hangaja.
Hala guri ere eguin darocuçu dohaña,
- 10 Ventçutçeco Ifalloan den fendoen arraña.
Lehorrera dakhar quegu eguiñic farrafquia,
Biçi çela aztaparrac cebillan ihiçia.
Hala dugu naturaren miraculluz bazterra,
Ohoratçen (longoicoa) çuc duçula efquerra.

⁹ Ciriquiain-Gaiztarrok *Manual*-eko grafia bera mantentzen du, f, ff, tf zeinuetan izan ezik, hauek eguneratu eta s, ts jarriz.

Arestian aipatu dugunez, P. Lafitteren *Euskaldunen lorategia*-n (1931:23), bertso hauek irakurtzeko aukera izango dugu. Bertan, lehen eta zazpigarren bertsoen amaierako hitzak 'laudarioak' eta 'etsaia' ditugu.

Ez diosku Lafittek erabili duen argitarapena 1627.ekoa ala 1699.ekoa den. Azken hau izan bada, zuzendu egin du Etxeberriren testua, azken edizio honetan 'laudorioac' eta 'etfajac' baititugu.

Orrialde barreneko oharretan, honako hau jarri du *Vrrutic içi deçan* hori dela eta: «4) Vrrutic içi deçan hori *chaharchkoa zaiku: erran nahi du: 'urrundik izitzen baitu'». Ez digu, ordea, 'hangaja' horren berririk eman, ezta bi esaldion esanahirik argitu.*

Ciriquiain-Gaiztarrok Mitxelenari bi bertsoon azalpenaz galdetu zionean, honek ezin izan zion erantzun zuzenik eman (Mitxelena, 1988a: 57). Ciriquiain-Gaiztarrok berak ere gainontzeko distikoen itzulpena egin du, baina bi bertsook itzuli gabe uzten ditu bere *Los vascos en la pesca de la ballena* (1961: 21).

Bertsootara bueltatzen den hurrengoa Manuel Lekuona da (1961: 374-375). Bere ustez, 7. bertsoan falta den bi silabatako hitza 'nola' liteke, 7-10 bertsoetan dugun konparaketaren lehen osagarria; 9. bertsoan genuke bigarren osagarri hori: 'hala'. 7. bertsoa, beraz, honako hau genuke: 'Ècen *nola* çure baithan tturroñ batec etfaja' (= *Porque así como por tu poder un ratoncillo a su enemigo...*). 8. bertsoari dagokionez, zera dio Lekuona jaunak, hemen ere 'hal' bat beharko genukeela 'deçan'-en aurrean: 'ici *hal* deçan' (= *puede espantar*). Honela, bada, distikoa osorik eta argiturik genuke.

8.eko 'Urrutic' hori «gratuitamente, sin motivo» liteke Lekuonarentzat. Ez du, haatik, 'hangaja' horren itzulpenik ematen. Bi distikook, bada, honela itzul litezke bere ustez: «Porque, así como en tu poder, un ratoncito a su enemigo puede gratuitamente espantar, aunque éste sea... (¿gigante? ¿kankallu?); así tambien a nosotros nos has hecho el don de vencer al pez más fuerte que hay en el mar.»

Justo Garate ere saiatu zen bi bertsoon esanahia argitzen (1963: 281-282). Hona bere itzulpena: «Pues en tu casa un turón al enemigo desde lejos lo atemoriza, deseando sea comestible.»¹⁰

10 Hurrengo hau diosku *hangaja* hitza dela eta:

El *hangaya* tiene un pendant en la sustitución de la j inicial por h en un vocablo que hallé, me parece que en Haraneder y tengo anotado en alguna parte.

Significa probablemente aquí la *volaille*, o sea, las gallináceas y palomas, etc, a las que señala su nombre inglés; *pole-cat* o sea gato de los pollos. En mi trabajo de Buenos Aires daba la derivación desde *putorius* para este TURON o mustela fétida de los catalanes. Dauzat deriva el *putois* (turón en francés) de *putidus*, lo que me parece menos verosímil. [...]

Ahora bien, ¿por qué este culto escritor euskariano puso una *h* aspirada en lugar de una *j* gutural? Yo me imagino que para guardar la métrica o cesura exacta de los versos que con una *j* podrían dar una sílaba más que con la *h*, muda en el verso...

Mitxelena berriro itzultzen da bi esaldiotara geroagoko artikuluko batean (1988b: 77-78). Hona zer dioen bertsook direla eta:

Ez da hitz kontu soila, bestetan ageri ez den *hangaja*-rena batez ere. Bertsoa bera makur dabil. Lehen lerroan, bi silabako hitza falta da, *ecen* eta *çure baiñan*-en bitartean zihoakeena. Bigarrenaren hutsa aisekiago senda daiteke, *vrutic*-en ordez *vrutitic* irakurtzearekin. Hain arrunta den haplografia genuke, beste hainbestetan bezala, erudun bakar.

Badakit don Manuel Lekuona eta Justo Garate saiatu direla, nor bere aldetik, okerrak zuzentzen, baina saio horick ez naute asebetetzen, kontentagaitzegia naizelako agian. Ez genuke, noski, horrela ibili beharik *Manualaren* beste edizioaren bat ezagun bagenu, nik behintzat ezagutzen ez dudana.

Oraingoan ere, ez digu Mitxelena jaunak bere eritzirik ematen eta *urrutic* hitzaren zuzentze soilean gelditzen da, esanahirik argitu gabe.

Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca-n ere (Akesolo, 1980: 1936 eta 3563) 'hangai' eta 'tturroñ' hitzen azalpen hau aurkituko dugu:

HANGAI: Grande, gigante, de estampa grande (Contrac. de *handigai*). Ezen zure *baiñan (dago) tturroñ batec etsaja / Urrutic izi dezan, nahiz dela* hangaja. (Balea hill ondoko eskerrak. J. ETCHEBERRY, Manual, II, 156).
TTURROIN: Musgaño, turcón. Ezen zure *baiñan (dago) tturroñ batec etsaia, urru(t)itik izi dezan, nahiz dela hangaia*. J. ETCHEBERRY, Manual, II, 156.

Argi erakusten zaigu hemen, bada, Aita Akesolo eta hiztegia burutu dutenak falta diren *dago* eta *urrutit*-en aldeko direla.

«Euskal filologiakoak, nahas-mahas» artikuluan (1989:172-174), bi esaldi ilun hauei buruzko Patxi Altuna jaunaren eritzia irakurtzeko aukera dugu. Hau ere, bere aurretik bi bertso hauez mintzo direnen eritziak aztertu eta bereak ematen saiatzen da. Lehen bertsoan falta den bi silabatako hitza dela eta, hau bere ustea:

Hor falta den bi silabako hitza zein den garbi dago, ene ustez, eta otoitzak berak erakusten du. Ohartzen bagara *çure baiñan* dioela eta otoitz guztia hasierako *launa*-tik dagoela dindilika eta hari zuzendua, ez dirudi desegokikeria hiru lehen distukoen ondoren berriro *launa* errepikatzea, ondoko beste hiruren ondoren ere *launa* ez baina *longoicoa* baitio berriro azken distikoan.

Bigarren bertsoan falta den hitzari gagozkiola, P. Altunaren ustea nahiko desberdina da. Berarentzat ez legoke zuzen 'ici deçan', objetua 'etsajac' izanik. Are, bi lerro horietan zerbait txarto, makur, badago lehen hemistikioan dago eta ez bigarrenean. Bere ustez, bada, 'deçan' horrek 'detçan' beharko luke izan. Baina zuzenketa honekin ere berdín jarraitzen dugu, nekez aurkitzen baita 'ecen' hori adizkia subjuntiboan duelarik. Arazo hau kontuan izanik, P. Altunak 'detçan' hori 'detçaque' bihurtzen du (Lekuonaren 'ahal' haren hildotik), 'vruric' hori dagoen dagoenean utzi eta bi bertsoak honela berridatzik:

«Ecen, launa, çure baiñan tturroñ batec etsajac
Vruric ici detçaque, nahiz dela hangaja.»

Jarraian, 'hangaja' hitzaren esanahia argitzen saiatzen da Altuna. Dioenez, Lhandek ez dakar hitz hori, bai berriz 'handigai, handigei' eta bere buruari galdetzen dio ez oten den 'hangai' hau aurreko horren laburdura. 'Handigai' horrek xotila, polita, itxura ederrekoa esan nahi du, eta esanahi hori berezko datorkio 'hangaja' hitzari pasarte honetan.

Azkenik, bertsoon esanahia argitzen digu:

«Balea atzemateko gure indarrak ez ziren deus, harenak handiagoak ziren, zure mesedea somatu dugu, Jauna, harekin borrokatzean» kantatu baitu poetak aurreko sei bertsoetan, orain konparazio baten bidez hori horrela dela agertu nahi du: «bada zure baitan, Jauna, arratoin txiki batek, xotila izanik ere, aise (dohainik) ikara ditzake etsaiak. Guk bezala; txikiak izanik, arrainik sendoena azpiratu dugu, Zuri eskerrak».

Aita Lino Akesolok, «Etxeberri Ziburukoaren bertso bi argitzen» artikuluan (1990:74-75), aurreko lerroetan jaso ditugun eritzi guztien berri emanik, bere honako hauek argitzen dizkigu bi bertsoon inguruan:

Bertso-bikote orri, ondo ulertzeko, ez dago ikutu andirik egin bearrik. Zer esan nai daben naikoa ondo ikusi eban Lekuonak. Bale arrantzaleak esker onez eta laudorioka dagoz Jaungoikoari, itxasoko arraiñik andiena menderatzeko mesedea egin deuselako. Euren indarrak ez ziran ori lortzeko gauza. Baiña Jaungoikoaren laguntzaz sagutxo batek be etsairik andiena urruñetik, urrundik izutu eta ikaratu dagike. Olantxe emon deutse arrantzalea, arraiñik sendoenari bizia kendu eta leorrera ekarteko indarra.

Etxeberriren testoak silaba biko itz bat, aditza ain zuzen, falta dau lenengo hemistikioan. *Ezen* orrek bere aditza eskatzen dau, urrengo bertsoa *izi dezan* menpeko dauana. Urrengo lerroan, *izi dezan*, nahiz dela hangaia jator dago eta errez ulertzekoa da. *Urrutik* falta dau silba bat. [...]

Lenengo bertsoan falta dan aditza *dago* da: Ezen zure baithan *dago tturoñ* batek etsaia *izi dezan*, andiena bada be. Eta urrutitik edo urrutirik izitu be.

Tturoñ eta hangaia itzaren azpian testo ori sartu bear eta, leenengo, iru silaben utsunea ikusi neban, leenengo bertsoan silaba birena, eta bestean batena. Ez neban buruauste andirik izan utsune ori betetako. Eta ona zelan osotu neban bertso bikote ori:

Ezen zure baithan *dago tturoñ* batek etsaia
urritik izi dezan, nahiz dela hangaia.

J. Antonio Mujika da bi bertso ilun hauetaz mintzatu zaigun azkena. Bere «Etxeberri Ziburukoaren testu ilun baten inguruan» artikuluan (1992: 301-310), lau ohar egiten ditu kontu honi buruz:

1) Lehen lerroan, bi silaba falta dira lehen hemistikioan.

Bi silaboi dagokionez, orain arte aipatu ditugunen eritziak aztertu ondoren, P. Altuna eta L. Akesolorenak batik bat, berak 'Ezta?' galdera erretorikoa, baldintzazko 'bada' eta 'baita' proposatzen ditu, hiru hauetarik azkena aukeratzen duelarik. Hona aukeraketa horren zergatia:

Hirugarren aukera *baita* izango litzateke, hau da, *bait* menderagailua gehi *da* adizkia. Hau da nik hobesten dudana aukera. Ondo ulertu behar da, ordea: *bait-* ez doa *ezen* partikularekin —euska gramatikak galerazteaz duena—, ondoren datorren *egin darokuzu* aditzaren mendean baizik. Azken hau da, izan ere, zati osoaren aditz nagusia: *Ezen (zure baitan baita...) hala guru egin darokuzu...». Ezen* partikularen ondoan etentxo bat legoke eta mendeko perpausaren azken

hitzak, *hangaja*-k, amaitu gabeko perpausaren doinua izango luke. *Ezen... egin darokuzu* da esaldi osoaren ardatz nagusia.» [...]

Horrela, bestalde, garbi ikusiko litzateke nondik eta nola sortu den inprimatzaileak egin duen hutsa: *baithan baita* bikotearen bigarren hitza itzuri zitzaion haplografia soil baten ondoren.

2) Bigarrenean, silaba bat falta da, lehen hemistikioan.

Bigarren bertsoko lehen hemistikioan falta den silaba dela eta, Mitxelenauren aukeraketa bera egiten du, 'urrititic'; hobe esan, Altunak proposatzen duen 'urrititic' (Altuna, 1989: 173).

3) 'Urrutic' ez da ondo ulertzen.

'Urrutitic' horren esanahia oso erraz uler daiteke, J. A. Mujikaren ustez, dagoen dagoenean. Dena den, ihesaren ideia dagoela dio esaldi horren azpian, «Altunak ematen dituen erreferentzia guztietan ideia hori ageri da arratoien ekintzari lotua (fugaverint incolas)».

4) 'Deçan' aditzaren inguruango bi zalantza: subjuntiboaren erabilerari dagokiona eta komunztadurarena (singularra da eta 'etsajac' objektua, plurala).

Komunztaduraren kontuari dagokionez, Altunak 'etsajac' aukeratzeko dituen arrazoiak aztertu ondoren, «han 'laudorioak' behar du, rimak eta gramatikak horrela hobesten baitute, eta hemen 'etsaia'», esaten digu.

Honela berridazten ditu, bada, bi esaldiok J. A. Mujikak:

Ecen, çure baithan *baita* tturroñ batec etsaja,
Vrruititic ici deçan, nahiz dela hangaja,
Hala guri ere eguin darocuçu dohaña
Ventçutceco Itsassoan den sendoen arraña.

Mitxelena jaunak, *Manual*-aren beste edizio bat ezagun bagenu, ez genukeela falta direnak asmatzen ibili beharrik zioen (1988b: 77), baina lehen argitarapenak argitzen duen bakarra zera da, lehen distikioan 'laudorioac' eta 'gehiagoac' eta laugarrenean, 'etfaja' eta 'hangaja' direla hoskide.

'Laudorioac' eta 'guehiagoac' pluraleko formen aldeko beste erakusgarri bat: *Eliçara erabiltceco liburua*-n (1666: 33), lehen tratatuko bigarren araldeko VII. buruan, «Arrantçailleen othoitçac» izenburupean, 36 bertsu jarri ditu Joanes Etxeberrik. Ataltxo baten izenburua «Balea hill ondoco esquerrac» da eta *Manual*-ean agertzen diren bertso berberak ditugu:

Iauna ditutçula esquer / Eta laudorioac
Million eta milion / Baño guehiagoac.

Alde honetatik, bada, badirudi *etsaja* singular dugula (L. Akesolo eta J. A. Mujikak proposatzen duten bezala) eta, honenbestez, ezin onar daitekeela Altunak proposatzen duen 'detçaque' forma plurala.

Laugarren distikoko lehen bertsoan falta den bi silabatako hitza eta bigarren distikioan falta den silaba direla eta, Manuel Blecuaren *Manual de*

crítica textual aipatu nahi nuke berriro ere. Kopistak transmisio prozesuan egiten dituen hutsak lau eratakoak direla dio; gehiketaz, ahanztiz, ordena aldaketaz eta ordezkapenez gertaturikoak hain zuzen. Eta, gure ustez, kopista bati egotz lekizkokeen hutsak konposatzaile bati ere egotz lekizkioke, neurri haundi batean bederen. Alde honetatik, uste dugu oso erraz azal daitekeela bigarren bertsoko 'urruititit' 'urrutit' bihurtzea, haplografia bidez. Lekuona, Mitxelena, Akesolo eta J. A. Mujikaren aldeko gara, bada.

Laugarren distikoko lehen bertsoko bi silabatako hitzaren kasuan ere, oso erraza da konposatzaile batek elkarren segidako antz handiko bi hitzen aurrean, hauetako bat ahanzte. Eta, J. A. Mujikak proposatzen duenez, elkarren segidako hitzok 'baithan baita' badira, posiblea litzeki bat ahanzte, 'baita' kasu honetan. Egin zitezkeen hutsen ikuspegitik, bada, errazago azal daiteke aldameneko hitzaren antzeko bat faltatzea eta ez erabat itxura desberdinekoa litzatekeen 'hala', 'nola', 'dago' edo 'tauna' bat.

Berriro ere errepikatu nahi dugu gure ustea ez dela testuaren azterketa eta beronen interpretazioan oinarritzen, konposatzaile edo kajista batek hitz bat aldatu eta beste bat ahanzteko zergaitiak azaldu nahi horretan baizik.

1.2.10. P. Altunaren edizioa

Euskaltzaindiak eta Ediciones Mensajero, 1981. urtean, Patxi Altunak prestatutako *Manual devotioezcoa*-ren lehen zatiaren edizio kritikoa plazaratu zuten. Lehen zati hau *Manual*-aren lehen liburuarri dagokio, guztira 3.814 bertso direlarik.

Altuna jaunak berak dioenez (1981: 9), Hordagoren berredizioaz baliatu da bere edizio kritiko hau paratzeko.

Oso edizio kritiko interesgarria iruditzen zaigu, arrazoi hauengatik batipat:

a) Hitzaurre gisako lehen orrialdeetan (32 orrialde), hiru ataletan banaturiko Etxeberri Ziburukoari buruzko garrantzizko zehetasunak aurkituko ditu irakurleak:

- Bizitza eta obra.
- Etxeberriren mintzaira.
- Liburuaren grafia.

Lehen atalean, bizitza eta obraz gain, Oihenartek Etxeberrii egotzen dizkion sei erruen kontuaz ihardungo du Patxi Altunak. Erruok inoiz inon egin ez diren hamabost silabatako bertsoak paratu izana; euskal hitzek azken silabetan omen duten kantitatea bortxatu izana; maiz poto egin izana; bertsoaren hamabost silabak osatzeko, mugatzailea inoiz izenari eta adjetiboari erantsi izana; elisio-sinalefak gogoak ematen dionean bakarrik egin izana, eta «il se donne en plusieurs lieux d'autres licences exorbitantes» dira.

Horrezaz aparte, Etxeberrii bere adiskideek latinez idatziriko eskaintzen dizkioten bertso batzuen esanahia azaltzen saiatzen da. Hauetan

ezinikusia eta bekaizkoa agertzen zaizkigu. Patxi Altuna ezinikusia dion pertsona hori Oihenart delakoan dago, edo Oihenart ere bai behintzat (1981: 13).¹¹

Hitzaurre honen bigarren atalean, Etxeberriren mintzairari eskainian, morfosintaxia, aditza eta bertsogintza ditu Altuna jaunak aztergai.

b) *Manual devotioenezcoa*-ren testuari berari gagozkiolarik, gauza aipagarri bat: Altunak bi aldiz jarri digu testua: Liburuaren orrialde pareetan Etxeberriren garaiko grafia mantenduz, f, s > s berdindu eta ff grafia gaurko erara bihurtzen baditu ere, eta orrialde ezpareetan gaurko grafiara aldatuz. Kontu hau balio haundikoa iruditzen zaigu Altuna jaunak jarraitu dituen erizpideak ikusi eta hartan ikas baitezakegu.

d) *Manual*-aren testua oharrez eta azalpenez josia dago. Honen arrazoia Altunak berak eskaintzen digu (1981: 7):

Joan den ikasturtean, ordea, Euskal Filologiako ikasleei aintzineko idazleez eskolak eman behar eta aurreko udan eskolak prestatzen ari nintzelarik, bertantxe konturatu nintzen, oharrez eta argibidez homituriko esku libururik ez zuteino, ezin zezaketela ikasleek behar bezala lan egin; beste edozein Filologia ikasten duten eskolariok bezalaxe, behar zituztela noraezean gureek ere esku liburu egokiak, autorearen berririk, haren hizkeraren bereizgarrien oharrik eta pasarterik ilunen argitasunik eskainiko zietenak.

Aurkituko ditu, bada, irakurleak edizio kritiko honetan zehar Etxeberriren obraren ezagueran barneratzeko giltzak eta izango du bertan bildutako jakituria dastatu eta bere egarria asetzeko adina ohar eta irakatsi.

2. 1627.eko eta 1666.eko lekukotasunen arteko erkaketa

2.1. Hutsa *Manual devotioenezcoan*¹²

Etxeberriren lehen lan inprimatu honen bi edizio desberdinen aldakien konparaketak ez du balio haundiegirik izan bi testimonioon jatorria zehazteko orduan. Aldaki gehienak aldaketa kontzienteak edo inprenta arazoen eragindakoak dira. Haien kasuan, jakina denez, XVII. mendearen hondarretarantz gertatzen ari diren grafia aldaketen erruz gertatutakoak; hauenenean, inprenta arazoen eragindakoen kasuan, inprentaren izaerak berak eragindakoak.

Huts bezala har genitzakeen aldakiek, ordea, ez dute kopuru handiegirik osotzen eta, hauetan ere, gehienak ustegabeko huts lokabeak dira, huts

11 Ez da, baina, eritzi berekoa Beñat Oyharzábal. Bere artikulu batean (1999a: 207) «Si l'hypothèse d'Altuna est remise en cause, quelle autre lecture peut être proposée de la querelle dont témoignent les vers d'Etcheberri? Je voudrais suggérer que l'on rencontre ici l'écho d'une dispute de nature plus linguistique que littéraire, où les opposants d'Etcheberri devaient être des membres du clergé hostile à l'utilisation de la langue basque dans la diffusion par l'écrit de la doctrine catholique.»

12 Hutsaren teoria erabiltzearen zergatiaz ikus I. Atutxa (1999: 274-275).

poligenetikoak; huts komunak, aldiz, gutxi dira eta, Etxeberriren beste bi liburuekin ez bezala, ez digute zeinek zein irakurri duen argitzen lagunduko.

Hona huts adierazgarrienak.

a) duplografia arrunt bezala har genitzakeenak

M1	007	1926	diocela	dioela
M1	010	0134	aiticiñean	aitciñean
M1	017	0320	Cerüan	Ceruuan
M1	033	0799	ckharlo	kharlo
M1	044	1062	gaizteari	gazteari
M1	097	2587	belkhoquia	bekhoquia
M1	109	2932	Vruguilluac	Vrguilluac
M1	125	3454	Berharco	Beharco
M2	008	0090	baitçaitugua	baitçaitugu
M2	008	0099	aphaindu	caphaindu
M2	051	IZ5	Meçaracoac	Meçaracoan
M2	118	2926	longoicoac	longoicoa
M2	129	3161	chuchenqui	chuchenquin
M2	134	3253	verthutea	verthtutea
M2	135	3284	Neeurriz	Neurriz
M2	160	3957	gueroi	guero
M2	200	L349	Martyriena	Martyrena

Hitz osoa soberan dagoen adibideak

M2 016 0298 ————— Arranoa hain...¹³

M1 80 orrialdea 2093 bertso zenbakia

Ona pena gabe, eta gaixtoa dolorezqui

Ona

Eçen guztiac hillen tu ordean differentqui,

Ona pena gabe, eta gaixtoa dolorezqui

Argi erakusten zaigun 1627.eko testimonio honetan errakuntza konposatzailearena izan dela. Orrialdearen oinean agertzen den deia 'Ona' da eta hurrengo lerroko bertsoak 'Ona pena gabe...' hasi behar zuen. 80. orrialde honetako azken bertsoa, aldiz, 'Eçen guztiac hillen...'.¹⁴

M2	157	3942	haren haren	haren
M2	160	3965 ¹⁴		
M2	171	224L	eta eta	eta

b) Haplografiazat har genitzakeenak

¹³ Bertso oso hau dago errepikatua testimonio honetan.

¹⁴ 1627.eko edizioan, 3963 eta 3964 bertsoak errepikatuak daude.

M1	007	0068	Gauçan	Gauça
M1	008	IZ4	Catechifma	Catechima
M1	012	IZ3	iguinari	higuinari
M1	015	0267	fenuac	fenfuac
M1	022	0460	puchantarena	puchantarenera
M1	025	0533	ninceneco	inceneco
M1	026	0555	Ama	Amac
M1	033	0784	baitituc	baititu
M1	037	0879	khoratu	khoroatu
M1	064	1637	Nazarengo	Nazarengo
M1	070	1799	burei	buruei
M1	077	2001	Bidezcoa	Bidecoa
M1	080	2088	alaber	halaber
M1	098	2626	trancimendua	trancimendu
M1	106	2856	bait	bat
M1	113	3077	baicen	baien
M1	119	3259	bercera	bercea
M2	014	0233	bulharraren	bulharren
M2	024	0527	merci	mereci
M2	034	0773	guztien	guztie
M2	053	1283	nihor	nihorc
M2	091	2245	erautfi	eracutfi
M2	093	2301	olian	olioan
M2	117	2902	laudorioac	laudorioa
M2	118	2926	reatura	creatura
M2	146	3604	ioatetic	ioateic
M2	159	3946	hartaracotz	hartaacotz
M2	166	72L	Arrofario	Arrofarioa
M2	172	242L	bainiz	bainaz
M2	176	352L	aurkhitceco	aurkhitceco
M2	191	716L	gibla	gibela

Hitz osoa falta den adibideak

M1	069	1783	—	ajutaric
M1	096	2560	—	eguin
M1	111	IZ4	LAVDORIOA	—

M2 38 orrialdea 908 bertso zenbakia

O longoico arguiaren izpiz banaçaillea,
 Ene othoitçaren entçuntçaillea. A
 Ene othoitçaren arren, çaren entçuntçaillea B
 Eta eguidaçu, launa, egungo egun guztia,
 Behkaturic eguin gabe paffatceco gratia.

M2 45 orrialdea 1058 bertso zenbakia

Guero ahoz declaraçac ceren duen premia,
 Eternalac emateco çabal deçan erhia.
 Alltchatçean berçetcho hau eztuc behar ahantçi,
 Heure othoitça deçaquentçat moldezqui. A

Heure othoitça akhaba deçaquentçat moldezqui. B

M2	196	176L	+++++	<i>Bercean beçala</i>
M2	213	IV	Viaya othoitçac	Viaya bereco othoitçac

c) Ordenaren aldaketaz gertatzen direnak

M1	031	0731	beletan	bestaten
M1	034	0816	Çeüren	Ceruen
M1	042	0998	cureletaric	cruetlaric ¹⁵

M1 43 orrialdea 1043-44 bertso zenbakiak

1627 Sarri edo berant ditu atcematen guztiac,
Ecen itçurtceco dire bide guztiac hertfiac.
Mortu çarraturic ezta, non ezteçan idequi,
Ez aintciraric iragan, non ezteçan idocqui.

1669 Mortu çarraturic ezta, non ezteçan idocqui.
Ez aintciraric iragan, non ezteçan idequi.

M1	113	3057	Erromeritean	Erromerietan
M1	114	3096	vtzen	vzten
M1	117	3208	gorgotcen	gogortcen
M1	132	3639	lafteracco	laftercaco
M2	009	IZ1	Othoitz	othiotz
M2	013	0205	iguzquiac	iugzquiac
M2	032	0742	etçaren.a	etçarena.
M2	038	0906	orhoituez	ohroituez
M2	051	IZ2	fiñac	fiñac
M2	107	2676	puchantçaz	puchançatz
M2	138	3377	deçin	çedin
M2	196	L180	guretçat	guertçat
M2	213	III	mnaeraren	maneraren

d) Ordezkapenez gertatzen direnak, jarriko ditugun gehienak edo *lectio facillior* edo huts paleografiko bezala hartuak izan ditzakegularik.

M1	008	0085	nunçatuduc	minçatuduc
M1	096	0257	Generale	Generalac
M1	114	3087	Martirio	Martyio
M2	007	0057	diotçoten	diotçute
M2	016	0306	aithortcen	ait-horen
M2	028	0618	gäüetic	gañetic
M2	061	1458	huni	hure
M2	118	2939	bethi efquer bereci	bethi etiefquer
M2	119	2954	erremertza	erremercia
M2	193	L067	Gaietoen	Gaichtoen

¹⁵ 18 aldiz ikusi ditugu 'curel/cruel' erako aldaketak M1 eta M2an.

Huts paleografikoak

M1	016	0291	Oahamen	O ahamen
M1	021	0423	diufcuçuo	diufcuçu O
M1	021	IZ2	<i>Abfoluitceco</i>	<i>Abfoluitcec o</i>
M1	034	0834	Hauda	Haud a
M1	117	3177	Iaunac	Ia unac
M2	001	IZ10	Erreg u eren	Erregueren
M2	027	0615	gorputz eta	gorputzetan
M2	041	0978	oth oitça	othoitça
M2	143	3511	nicere	nic ere

Ez dugu *Manual devotioenezcoaren* testimonio desberdinetan huts banatzailatzat hartuak izan daitezkeen adibide argiegiak aurkitu, jarriko ditugunak aldaketa kontzientetzat ere izan daitezkeela uste baitugu. Hona, hala ere, adibide gutxi horiek:

M1 44 orrialdea 1053 bertso zenbakia

Viftaz ikharatcen dituc buruçagui gogorrac,
 Eta ematen daroztec tranfimendu agorrac.
 Gutienic noiz baicare guero hitçaz orhoitcen,
 gueure
 Orduan daroquc bici maitea arrapatcen.

A
 B

M1 66 orrialdea 1692 bertso zenbakia

Ohoretan farthu eta falfo enganariac,
 Haguitz mehatchaturen tu ez finhetfi nahiac.
 Hafñitz bere eguinen du tormentaren beldurric,
 Bercei iarraitquitcen çaiç hequin contra famurrez.
 famurric.

A
 B

Argi dago bertsoak 'famurric' eskatzen duela.

M1 87 orrialdea 2301 bertso zenbakia

Vngui ethorri, vngui ethorri diufquec milletan,
 diofquete
 O arima dohatfuac lekhu faindu hunetan.
 Vngui ethorri fidel, eta adifquide maiteac,
 Eta ene Semearen ordenantçac gordeac.

A
 B

1669.eko testimoniak dakar irakurketa zuzena. Patxi Altunaren esanetan «*diosquete*: hark haiei gero: hots, *esanen die*» (1981: 286).

M1 119 orrialdea 3243 bertso zenbakia

Halaber du Inongoicoac gaztigitcen arima,
 Bekhatu mortaletic chahu partitudena.
 Ecen batec eztu nahi Sathan coleratfuac,
 batere

A
 B

Eman diotçan gañera efai atçapartfuac.

1669.ekoa litzateke, hemen ere, irakurketa zuzena 'eztu nahi' hori Jangoikoari bailegokio, ez 'batec' horri (Ezen Jangoikoak ez du batere nahi...).

M2 162 orrialdea 4031 bertso zenbakia

Othoitz hauc beraz ikhafquic perrillei itçurtceco,
 Bai eta are portutaric efquerren itçultceco.
 Vorondate hobeagoz longoicoac gratiac,
 Eman dietçaquen, haren threforetic nahiac.
 gratiac.

A
 B

Hau, izan, ez da huts banatzailea *homoioteleutonez* gertatutako jauzi bati egotzi behar zaion aldaketa baizik. Izan ere, konposatzaileak aurreko lerrorako jauzia egin eta toki berbereko 'gratiac' errepikatu baitu 1669.eko testimonioan.

M2 172 orrialdea 242L bertso zenbakia

Nolacoa bainaiz ere, ez naiz ceure, ez berceren, bañan guztiz çure, ceure creatura behar handian dena vrrical bequiçu, eta puchantça duçun leguez orain eta bethi fauora çaçü.

'Ez naiz neure' dio 1669.eko testimonioak eta hau da hobetsi behar duguna.

3. Zenbait kontu bibliografikoz

3.1. *Egile, editore eta inpresoreez*

3.1.1. Egile eta editoreez

Edizioen prestatzaileak pertsona desberdinak izan zitezkeela esan behar dugu hasteko. Idazlea bera izan zitekeen, eta kasu honetan zera suposatzen zen, idazleak moldiztegian orijinal zuzendua eta landua aurkeztuko duela; frogak zuzenduko dituela eta inprimatutako testuan egileak jarri eta esan nahi zuena bera agertuko dela. Alde handia dago, bada, inprimaketa lancz arduratua dagoen egile baten edizioa eta honek zerikusirik izan ez duen baten artean.

Ardura hau dela eta, Joanes Etxeberri Ziburukoa bera ere kezkatu egiten du kontu honek. *Noelac* liburuak ezagutu duen lehen edizioan, azken taulen ondoren, amaieran, honako hitzak jarrarazi du Etxeberrik (1645: 150-151):

«Iracurtçaillea, excufatuco / nauçu baldin impreffioncan
 cembait falta edireten ba- / duçu , ecen eznintcen ne-
 rori lekhuaren gañcan.»

Gonzalez de Amezuaren adierazpen interesgarri batzu daude zuzenketa eta zuzentzaileak direla eta (1951: 355). Inprenta guztietan, bi eratako zuzentzaileak zirela dio; inprentakoak bertakoak, beraien lana burutzen ohituak eta, oro har, ongi betetzen zutenak, eta zuzentzaile orokorra. Zuzentzaile orokor

hau Gaztelako Erresuman 1502.eko uztailaren 8ko Pragmatikak sortua da. Dirudienez, beraz, ez dagokio Iparraldeko inprentei.

Manual devotioenezcoa-ren bi edizioak akats gutxi dute (ez ditugu hemen kontuan tipo mugikorreko inprentaren hutsak edo idazleak dituen grafia zalantzak). Honek zera pentsarazten digu, bada, lehen liburuaren inprenta frogarik zuzentzeko aukera izan zuela Joanes Etxeberrik (1627.ekoa da lehen argitarapena) eta inprentako zuzentzaileak ere ongi bete zuela bere beharra.

Honekin lotua dago grafiaren kontua. Batasun ortografikoa inposatzen duena, maiz, inprenta bera izaten da eta askotan inprenta horretan erabilgarri dauden zeinuetara moldatu beharra izaten du testuak. Oker dago, bada, Gonzalez de Amezuak erakusten duenez (1951: 354), liburu inprimatuko grafia egilearena berea dela uste duen asko, kajistarena edo, gehienik ere, zuzentzailearena delarik.

Vinsonen ustez (1891-8: 89), J. Mongiron Milanges, bere oinordeko eta inguruko gainontzekoek —Baionako Fauvetdarrak barne— ez dute erabateko erreforma ortografikoa XVII. mendearen hondarretara XVIII.aren hasieran baizik gauzatu. Aipatu berri dugu maiz gertatzen dela zeinu bat inprimatu ezina tipo hori ez dagoelako erabilgarri.

J. Mollen ustez —eta orain editoreen arloan sartuko gara—, edozein liburu argitaratzean editoreak duen garrantzia gutxietsia izan da. Liburu orok eskatzen du diru inbertsioa. Nork egina, baina? Batzutan liburuan bertan erakusten zaigu, bestetan ez. Egilea bera izan daiteke inbertsio hori egiten duena; orduan, espreski adierazia agertuko da liburuan («egilearen kargu» edo horrelakoren bat agertuko da). Ez da, haatik, maiz gertatzen hau; ezta obra eskainia dagoen pertsona edizio horren kargu egitea.

Eskaintzak direla eta, zera dio J. Mollek (1979: 95):

La dedicación a un personaje podrá ser debida a dependencia, amistad o espera de protección, pero habitualmente poco rinde al autor. Creemos, por otra parte, que se transforma en una costumbre, que valora al libro, incluso en su aspecto exterior, y sirve al lustre del personaje a quien va dedicado, y a quien el autor o el editor enaltecen, en su persona y en la nobleza de su casa.

Ez da, eskaintzaren kontu honetan, uste berekoa Gonzalez de Amezua jauna. Honela dio eskuartean darabilgun artikuluan (1951: 343):

... Para ello cuenta en su albedrío con un medio sutil y persuasivo: la *dedicatoria*; porque ya lo dijo Quevedo: «Todos dedican sus libros con dos fines...: el uno, de que la tal persona ayude para la impresión con su bendita limosna; el otro, de que ampare la obra de los murmuradores». Bastará, pues, que el novel autor dirija su libro a un opulente *magnate*, estampando su nombre y títulos orondos con grandes y llamativas letras en la portada, donde campea, además, el orgulloso escudo de armas de su linaje, para que aquél se ablande y descorra los cordones de su bolsa, más o menos repleta. Dos hojas más allá, en sus preliminares, la humilde y servil *dedicatoria* hará larga reseña de las hazañas y méritos personales del mecenas;...

Manual devotioenezcoa-ren lehen liburuan honela dio Joanes Etxeberrik 6 zenbakidun orrialdean:

DEDICATIONEA, ENE
IAVN CLAVDIVS DE RVEIL,
*Baionaco Iphizpicu digne, Erregueren
Conseillari, Eta Parizco femeari.*

34 bertso dira eta ikusi dugun hau bertsoon izenburua da; sei bertsooz amaitzen da eskaintza hau:

Hartaracotz obra hunen, patroin çaitut hautetfi.
Guaifqui errailleac çeren baititutçu guaitçetfi.
Çuri Efcaintçen darotçut, othoi guarda eçaçun.
Inuidiofen mihiac liçun eztieçaçun.
Erregueac behar ditu defendatu gendeac,
Hitzcuntça bateocac hain vngui nola berçeac.

Argi erakusten zaigu hemen, bada, J. Mollek eta Gonzalez de Amezua jaunek adierazi berri digutena. Argi dago ohitura izan daitekeela eskaintzen kontu hau.¹⁶ Baina gure ustez, Quevedok zioen bezala, baliteke eskaintza hau ere bi helbururen atzetik ibiltzea: bata gaizki errailetarik guarda dezan¹⁷ eta, bigarrena, bere diruz inpresiorako laguntza eskaini dezan. Kontrarreformaren ondorioz, neurriak hartzen dira eliztarrak elikagai izpirituala bere hizkuntzan har dezan.¹⁸ Eta liburu hauek horixe dira, elikagaia. Hauek honela, ez litzateke harriztekoa izango erregearen konseilari den Baionako apezpikuak diruz lagundu izana. Are, pertsonaia hori Baionako Bikario Jenerala izanik, zilegi dirudi dioguna aitortzea, pertsonaia honi baitago eskainia *Manual devotioenezcoa* honen bigarren liburua. Honela dio 3. orrialdeko eskaintzaren izenburuak:

DEDICATIONEA.
IAVN MIGVEL / DE OIHARART,
VICARIO GENERAL / OFEICIAL, ETA BAIIO-
naco Eliça naüffico, Ca- / longe Theologari.

16 Eskaintzen egitekoetara zuzendua da Jean Baptiste Orpustanen lantxo bat “Un type de ‘paratexte’ dans la littérature basque de la première moitié du XVII^e siècle: Les dédicaces (1999).

17 Aipatu berria dugu B. Oyharçabalen eritzia gaizki erraile hauei buruz. Artikulu osoan zehar C. de Rueili eginiko eskaintza aztertzen saiatzen da eta bertan (1999a: 207) «En effet, ils apparaissent dans la dédicace de l’ouvrage, ensemble de dix-sept distiques adressés à l’évêque, où la question linguistique est directement et presque exclusivement évoquée: le prélat, bien que polyglotte, n’est pas bascofphone, mais c’est en basque que l’auteur s’adresse à lui, donnât clairement á entendre que ce choix de langue (que n’avait pas fait Materre quatre ans plus tôt) résulte d’une prise de position relative au pluralisme linguistique.»

Urte bereko beste artikulu batean ere kontu berberera datorkigu (1999b: 51): «Pourtant, si les témoignages d’une hostilité à l’emploi du basque dans les écrits religieux en Labourd à cette époque sont peu nombreux, ils existent. Ainsi, huit ans avant la publication de l’ouvrage de Haramboure, la dédicace d’Étcheberri à Claudius de Rueil, Evêque de Bayonne, en tête du 1^{er} livre de *Manual devotioenezcoa* (1627/1669) indique que ces publications ont pu faire naître des incompréhensions et des critiques. [...] il devait exister dans les milieux religieux un courant peu favorable à ces publications en langue basque.»

18 Berrito itzultzen da kontu hauetara Oyharçabal “Status et évolution des lettres basques durant les XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles” artikuluan (2001: 233-242).

Hogeita bi bertso dira eta hemen ere argi erakusten zaigu adiskidetasuna, batetik, eta bere obraren babes bila dabilena (18-19. bertsoak), bestetik. Bigarren liburu honetako «Itsassoco biayetaco othoitcen araldea» ere Migel Oiharard Bikario Jeneralari eskainia da.

3.1.2. Inpresoreez

Inpresoreei dagokienez, derragun *Manual devotioenezcoaren* bi edizio desberdinak Bordelen inprimatuak izan zirela. Ernesto Labadieren *L'imprimerie bordelaise et les livres basques* lana (1913) jarraituko dugu Bordeleko inprimatzaileoi buruzko zertzelada labur batzu emateko.

Simon Milangesek moldiztegi haundi eta garrantzitsu bat kokatzen du Bordelen 1572. urteaz gozotik, baina 1623.era arte ez da moldiztegi honetan euskeraz idatziriko libururik aterako. Urte honetan bertan hil eta Jacques bere seme zaharrenari utziko dio bere moldiztegia. Aipatu lehen euskal liburua Etienne Materreren *Doctrina Christiana*-ren bigarren argitarapena da.¹⁹

Milangesarren bigarren euskal argitarapena gure Joanes Etxeberriren *Manual devotioenezcoa* da, 1627.ean. Dakigunez, liburu honek Gilen Milanges inprimatzailearen izena darama. Gilen hau Jacquesen ondotik etorri zen, 1625.ean, eta Gilen honen oinordeko Mongiron Milanges izango dugu, bere loba, 1650.ean. Mongiron Milanges da, izan ere, *Manual*-aren bigarren argitarapena plazaratuko duena 1669.ean.

3.2. Inposaketa modua: plegu eta zeinadurez

3.2.1. Pleguak

Plegu eta zeinadurei buruzko atal hau garatzen hasi aurretik, liburu baten aipamena egin nahi genuke. Beronen izenburua *Institución y origen del arte de la imprenta y reglas generales para los componedores* da, egilea Alonso Víctor de Paredes delarik; 1680. urte inguruan da argitaratua eta gu Jaime Mollek prestatu zuen berrargitarapenez baliatu izan gara (Moll: 1984).

Bi kapitulutan zehar (seigarrena eta zazpigarrena), bi azalpen desberdinen berri ematen zaigu: orrialdeen fabrikazioa eta neurriak, batetik; inposizioak eta planen ezarketa, bestetik. Lehen azalpenak orrialde bakoitzean izango ditugun testu lerroak, hauen zabalera eta bazterren neurriarekin du zerikusi. Bigarrenak, hemen luze eta zabal azalduko dugunak, plana bakoitzak izan behar duen tokiarekin eta inposaketa motekin.

Orrialdeen fabrikazioari gagozkiola, Alonso Víctor de Paredesek hiru genero desberdintzen ditu: genero osoa, arruntena; genero osagabea eta genero zeharkatua. Genero osoak, bestalde, folioko, lauko, zortziko, hamaseiko,

¹⁹ 1617.ean agertu zen Bordelen euskaraz idatziriko bigarren liburua. Berau Aita Materreren *Doctrina Christiana* da, inprimatzailea 1615.ean moldiztegi berri bat eraikia den Pierre de la Court delarik. Lehen liburua, jakina, 1545.ean argitaratzen da, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, François Mospaineren.

hogeita hamabiko eta hirurogeita lauko neurriak ditu. Genero zeharkatuan, orrialdeei ematen zaien zabalera genero osoan luzeran ematen zaiena da, eta luzera besteez zabalera dutena. Genero zeharkatu honek lauko, zortziko eta hamaseiko neurriak ditu. Genero osagabeak, hamabiko, hogeita lauko eta berrogeita zortzikoak.

Jarraian, Víctor de Paredesen liburutik jasotako genero osoari dagokion adibidea jarriko dugu, esan dugunaren erakusgarri (aip. lib.: 24v):

El Quarto es la segunda medida. y en ella lo mas que se haze son libros: en quanto al ancho de las líneas, no llevando cotas, ni columnas, se les puede dar veinte y quatro mm de Letura; y de largo veinte y quatro renglones de Parangona, veinte y ocho de Texto, treinta y quatro de Atanasia y quarenta de Letura.²⁰ Si fuese en columnas sin cotas, à cada linea se le pueden dar doze mm de Letura: y si tuvieran las columnas cotas, con diez mm de Letura tienen lo suficiente, y de largo los mismos renglones...

Liburu bat in-8^o edo zortziko, in-16^o edo hamaseiko, e.a., dela diogunean, bada, orrialde bakoitzean ditugun lerro kopurua eta hauen zabalera eta neurriez mintzo gara; ondorioz, orrialde edo planaren beraren luzeraren neurriaz. Zortziko liburu baten altuera, adibidez, 16-22 zentimetro bitartekoa izaten da. Hamazazpi zentimetrotik gorako neurria duenean, zortziko nagusi izenez ezagutuko da; hamasei zentimetrotara heltzen ez denean, zortziko txikiz ezagutuko da.

Guri dagokigunez, hauek dira Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioenezcoaren* bi edizio desberdinen formatoa eta planen neurriak, Vinsonen arabera (1891-8: 65 hh.):

1627.eko edizioa

Formatoa: in-8

Neurriak: 101 mm 5 x 167,5 (testuak berak 82 mm 5 x 149,5) Pabeko aleak: 103 mm x 163,5

1669.eko edizioa

Formatoa: in-8 foleo erdiz

Neurriak: 88 mm 5 x 152,5 (testuaren neurriak)

20 *Grancanon, Peticano* (26 pt.), *Misal, Parangona, Texto, Atanasia* (14 pt.), *Letura, Entredós, Brevario* (9 pt.), *Glosa, Miñona* (7 pt.) eta *Nonparilla* edo *Piedemosca* (6 pt.) dira —Alonso Víctor de Paredesek bere *Institución y origen...* liburuko bigarren kapituluaren erakusten digunez (aip. lib.: 6v-8)— haundienetik hasi eta txikieneraino, moldiztegietan izaten ziren letra motak.

Luis Desgraves ere bere *Les livres imprimés à Bordeaux...* (1971: 11), 1701.eko inkesta ofizialaz ari dela, honela dio:

«Simon Boé est le mieux équipé: il possède 3 presses en état, avec 9 fontes: petit-roman, parangon, gros-romain, saint-Agustin, cicéro, petit-romain et petit texte avec leur italique, plus de saint-Agustin et cicéro grecs.»

Baionan ere egin zen urte honetan inkesta ofizial hau eta, Vinsonen bere *Essai...*-n (1891-8: xxxij) hau dio Paul Fauveti buruz:

«En 1701, l'atelier de Paul Fauvet comprenait deux presses et six fontes de caractères: un petit-canon, un gros romain, un Saint-Agustin, un cicéro, une philosophie et un petit-romain; nous dirions aujourd'hui du 28, du 15, du 12, du 11, du 10 et du 9.»

Testuaren neurrian zeinadurak eta tituluak barne dira. 1669.eko edizioaz «*par demi-feuille*» dio Vinsonek. Hau honela da; zortzireneko plegu erdiz dago osotua liburua (8 orrialde pleguko).

Esan dugunez —eta orain Víctor de Paredesen bigarren azalpenari, inposizioak eta planei buruzkoari, ekingo diogu—, liburu inprimatua tipo mugikorrez dago konposatua eta koadernoak eratzen dituzten pleguez osotua. Víctor de Paredesek honela dio, aipatu dugun liburuaeren zazpigarren kapituluaren hasieran (Moll, 1984: 25v):

De las imposiciones, y colocacion de las planas.

En este particular del sitio que ha de tener cada pagina se requiere singularissima atencion en el discipulo, porque qualquiera descuido que aya en su inteligencia, no solo es vn yerro, ni solo cabeça de otros, sino que todo el pliego que passare con algun defecto en esta parte, vâ sin remedio perdido, y no puede servir de nada. Y assi me parece poner *diversas advertencias*.

Sea la primera, que el pliego de à octavo es la guia, y camino por donde se gobiernan todas las imposiciones del Genero perfecto; porque un octavo tiene diez y seis planas, y otras tantas tiene vn quaderno de à folio, pues lo mas ordinario es hazer cada cuaderno de quatro pliegos (aunque ya por gusto de los Enquademadores han dado en que se imprima en torno de à tres pliegos, que hazen dos planas). Si se imprime en quarto, es lo mas comun hazer dos pliegos en quaderno, que hazen diez y seis planas. Si en octavo, èl se las tiene. Si en diez y seis, cada pliego ha de constar de dos octavos, ò signaturas, que cada vna haze diez y seis, de forma que para doblarle se ha de partir el pliego por medio, y doblar cada medio, luego de por si...

Hamaseireneko ezarketari dagokionez, lau eratakoak izan daitezkeela dio, bigarrena «pliego con una sola signatura» izendatzen duelarik. Bere irudikapena honako hau da:

Gehiegitxo luzatzen ari bagatzaizkizue ere, beharrezko ikusten dugu jarraian azalduko dizuegun kontua kokatzeko.

Izan dugu Aita Beneditarrek Lazkaon duten etxera bisita egiteko aukera, eta bertako liburutegiko arduraduna den Aita Juan Jose Agirrereren konpanian, lan honi buruz mintzo

ginela, elkarrizketak Iruñan 1631.ean inprimaturiko liburu bitxi baten kontua ekarri zuen. Liburu honen datu bibliografikoak honako hauek dira:

Pliego de diez y seis con una sola signatura							
5	12	9	8	7	10	11	6
28	21	24	25	26	23	22	27
29	20	17	32	31	18	19	30
4	13	16	1	2	15	14	3
Blanco				Retiracion			

PARAYSO / VIRGINAL DE / DISCVRSOS PREDICABLES / en las fiestas dela siempre Virgen Maria ma- / dre de Dios, y Señora nueftra. / *CON DOZE PLATICAS PARA LOS PRIME-* / ros Domingos del mes en su alabança. / Por el Padre Fr. Juan de Mata Predicador general de la Orden de / Predicadores, y del Real Conuento de S. Andres de la / Villa de Medina del Campo. / *DEDICADO A LA MILAGROSSIMA / Imagen de Nuestra Señora del Rosario del dicho / Conuento y Villa.* / Año (inpresorearen marka) 1631. / EN PAMPLONA. / Con licencia del

Confejo Real Impreffo: por Carlos de Labà- / yen, Impreffor del Reyno de Nauarra. /
A cofla de luan de Veynça mercader de libros.

Aita Juan Jose Agirrek zegoen apalera eraman eta bizkarrean *Marial de Mantua* izenburua zuen narruzko azaleko liburua erakutsi zigun. Liburu guztiek izaten dute aitzin-gibeletan zuriz doazen zenbait orrialde (goardak), honetan gertatzen den bezalaxe. Kontua da kasu honetan ez daudela zuriz, inprimaturik baizik. Eta honek, printzipioz, ez luke inor harritu beharko, jakina baita garai hartan papera oso garesti zegoela eta normaltzat joenezake, zuriz jarri beharrean, inprimaturiko zenbait orrialde jartzea. Baina bitxi bihurtzen duen kontua jarraikoa da: inprimaturik agertzen diren aitzin-gibeketako lau orriak Joanes Etxeberriren *Manual devotioenezcoa*-ren 1627.eko argitarapenari dagozkiola (logikoa, bestetik, liburu hau 1631.ean argitaratua izaki). Baina hau ere ez litzateke harrigarria gertatuko agertzen diren orrialdeak agertuko ez balira. Aitzinean, lehen orriko eran *Manual*-eko 54-59 zenbakia duten orrialdeak ditugu; itzulian, 53-60dunak; bigarren orriko eran, 52-61; itzulian, 51-62; jarraian liburuaren lehen orrialdea (*Parayso Virginal*...). Gibelean, liburuaren amaieran, beste bi orri: lehenaren eran, *Manual*-eko 38-43 zenbakia daramatenak; itzulian, 37-44 dutenak; bigarrenaren eran, 36-45; itzulian, 35-46. Hau da, bada, harrigarriena, ez dutela *Manual*-eko orrialdeak segida arrunta jarraitzen (37, 38, 39, 40...). Liburuaren neurriak 195 mm x 140 mm dira eta *Manual*-eko bi orrialdeak ez dira osorik sartzen; ondorioz, 54, 53, 52, 51, 37, 36, 35 zenbakidun orrialdean goitik behera erdialde ingurutik ebakiak dira.

Víctor de Paredesen hamaseireneko «pliego con una sola signatura» delakoaren irudikapenera itzuliz, 1-32 zenbakiak jarraiko 32ez ordezkatzaren baditugu pleguaren irudikapen berria hau genuke:

Zeinadura bateko hamaseireneko plegua

37	44	41	40	39	42	43	38
60	53	56	57	58	55	54	59
61	52	49	64	63	50	51	62
36	45	48	33	34	47	46	35

Aurreko lerroetan azaldu dugun *Manual*-eko orrialdeen ezarketa eta irudi honetakoa

Era

Itzulia

konparatuz bat direla konturatuko gara eta lortzen dugun ondorioa honako hau da, *Parayso Virginal* liburuan agertzen diren *Manual*-eko orrialdeak tolestatu gabeko pliegu osotik hartuak direla. Plegu erdia erabili da (irudian grisez ilundua dagoena) eta gris ilunenez koloreztuak dauden orrialdeak liburuaren aitzinaldean eta gris argiagoz daudenak gibelean jarri dira.

Argi dago, bada, liburua inprimatu edo koadernatu duena *Manual devotioenezcoa*-ren pliegu batez baliatu dela aitzin-gibeketako orrialdeetarako. Eta hau da kontu hau bitxi bihurtzen duena. Liburua, azalean azaltzen zaigunez, Nafarroako Erresumako inpresore den Carlos de Labayen jaunak inprimatua bada,

Iruñan, 1631.ean, zer egiten du hiri honetan 5 urte aurrerago Bordelen inprimatu den liburu baten plegu batek?

Aita Juan Jose Agirrek *Manual devotioñezcoa* Iruñean inprimatua izan ote zitekeen galdetzen zigun eta iradokizun horrek eman digu zer pentsatu. *Manual*-ak Bordelen, Gilen Milanges erregeren inprimatzailea baitan oina du eta hauek honela hiru ikerketa bide zabaltzen zaizkio egarrria hase nahi duen ikerlariari:

1) Biak leku berean inprimatu direla erakutsi eta hau honela izanik, non gertatu den eta inprenta oinen kontua azaldu.

2) Bata Bordelen eta bestea Iruñan inprimatu direla onartu eta biak leku berean koadernatu direla suposatu aitzin-gibeletako orrialdeen kontua koadernatzailearena izan dela erakutsiz.²¹

3) Xabier Madariagak iradoki eta bere *Artes Gráficas* liburuan (1995: 85) dionez, posibleena zera da, *Manual*-a koadernatu gabe, pleguetan, heltzea Iruñara eta, horren ondorioz, inpresore/koadernatzaile honek pleguak izatea eta beraiez baliatzea *Marial*-aren goardak egiteko.²²

Kontu hau alde batera utzi eta plegu eta zeinadurenera itzuliz, argi dago, orduan, liburu bat ez dela orri orri inprimatzen. Plegu izena duen orri handi batean liburuako plana asko inprimatzen dira batera. Plegu hauek, behar bezala tolestuak, liburuaren orrialdeen segida ordenatua emango digute. Originala konposatzaile edo kajistaren eskuetara pasatzen zen; hauek ziren liburuaren konposaketa laneko pertsonarik garrantzitsuenak. Plegadura tipoaren arabera, konposatzaileak pleguaren bi alderdiak prestatuko ditu (Era eta itzuliaren antzeko zerbait, gaztelaniaz, *recto* eta *verso* deituak.) Tipo mugikorreko inprentak, plegua konposatu eta gero, eskatutako ale guztiak inprimatzera behartzen zuten. Jarraian, tipo berberak erabiltzen ziren hurrengo plegua konposatzeko eta honela besteekin. Pleguok, bestalde, neurri desberdinak izan zitzaizketen. Eguneango inprimatzeko paperaren formato arruntenak honako hauek dira:

<i>Corona de edición</i> delakoa	33 X 47 zm.
<i>Coquille</i> delakoa	44 X 56 zm.
<i>Carré</i> delakoa	45 X 56 zm.
<i>Raisin</i> delakoa	50 X 65 zm.
<i>Jesus</i> delakoa	56 X 76 zm.
<i>Colombier</i> delakoa	63 X 90 zm.

21 Ez da harriztekoa, ordea, Bordele eta Iruña arteko harremana. Desgravesek *Dictionnaire des imprimeurs, libraires et relieurs de Bordeaux*-en zera dio (1995: 197) «553. Milanges, Guillaume, 1625-1649. Maître imprimeur [...] Il conserva des relations commerciales avec L'Espagne: en 1628, une édition d'Ovide, en espagnol, poste l'adresse: En Burdeos, en casa de Guillermo Millanges, 1628; a costa de Bartolomé Paris, librero de Pamplona.»

22 Honela dio Xabier Madariagak: «En este sentido se puede entender la Real Cédula de 1790 que declara «... que la prohibición de introducir libros encuadernados de fuera del Reino se extienda a los libros que vengan de surtido y en más número que de un sólo ejemplar.»

Formato hauek tolesturik gabeko eta musarratu gabeko plegu leuetako papera adierazten dute.

Formato klasikoak era gehiagotakoak izaten ziren zerrendan formatoen anizkoitzak, azpianizkoitzak e.a.-ak ere sartzen baitziren (*double raisin, double carré* ...).

Formato klasikoek beti adierazten dituzte tolestu gabeko pleguak. Tolestuak beste hitz batzuez izendatzen dira, tolestura kopuruari dagozkion hitzez:

- bitan tolestua: in foleo (4 orrialde)
- lautan tolestua: in 4° edo laukotan (8 orrialde)
- zortzitan tolestua: in 8° edo zortzikotan (16 orrialde)

Argi utzi behar da tolestutako pleguaren izenaren ondoan tolestura hau eragin duen jatorrizko formato klasikoarena jarri behar dela. Adibidez:

- in 4° *coquille*: *coquille* formatoa lautan tolestua.
- in 8° *raisin*: *raisin* formatoa zortzitan tolestua, e.a.

3.2.2. Zeinadurez

Plegua adierazpenari hertsiki lotua dagoen beste adierazpen bat aipatu behar da, zeinadurarena alegia.

Plegu bakoitzean, lehen orrialde ezparearen barrenean, eskumatara, jartzen den marka da zeinadura, koadernatzaileei liburua eratzeko pleguen tolesketa errazteko jartzen zena. Alfabetoko letra bat zen, zenbakitxo batez jarraitua (arabikoa denean minuskulaz jarria), eta, esan dugunez, plegu bakoitzaren lehen orrialdean jartzen zen, orrialde ezparetan errepikatuz, pleguaren erdiraino. Honela, 16 orrialdeko plegu batean, lehen orrialdean A letra jartzen zen, bigarrenean A_{ij} edo A₂, hirugarrenean A_{ijj} edo A₃ eta laugarrenean A_{iiij} edo A₄. Bigarren pleguan gauza bera egiten zen B letraz, eta honela obra osotu arte. Alfabetua agortuta letrak bikoiztu egiten ziren, lehena maiuskulaz eta besteak minuskulaz jarriz.

Aurrera jarraitu aurretik zera aipatu behar da, pleguko azken orrialdean hurrengo pleguko lehen hitza —deia deituko duguna— jartzen dela konposatzaileak oraindik ere argiago ikus dezan zein den plegu desberdinen aria.

Komentatu eta azaldu beharreko zenbait gauza dugu *Manual devotioenezcoa*-ren bi edizio desberdinen lehen eta bigarren liburuen eraketa eta plegu sisteman.

1627.EKO EDIZIOA

1627.eko edizioa (in-8 formatokoa) zortzireneko pleguetan eratua da, eta 8 pleguk 128 orrialde osotzen dute; «Limboetaraco» deia dugu orrialde horren barrenean. Plegu erdi bat dator gero (129-136 or.; 8 orrialde beraz) eta azkenik bi

orri (4 orrialde) 137-138 orrialde inprimatuak eta jarraian datozen bi, zuriz daudenak.

Hasierako zortzireneko pleguak (16 or.) liburua lehenean orrialdeaz hasi behar zuen, orrialde bat zuriz jarraian eta A_2 zeinadura daramana 3 orrialdea. Baina, Jaime Mollek dioenez (1979: 52 hh.),²³ aurreko orrialdeak (azala, onespesak, lizentziak, e.a.) zeinadura arruntetik aparte joan behar zuten, majiz hori horrela gertatu ez arren. Horregatik hemen izenburua, lizentzia eta bestelakoak bi orritan (lau orrialde, beraz) zehar sartu dira; izenburuaren orrialdetik, bada, »Venial» deia daraman orrialdera (16 zenbakiduna) 20 orrialde daude (bi orri eta zortzireneko plegu bat).

1627.eko *Manual*-aren edizio honen bigarren liburua izenburuaren orrialdeaz hasten da, eta 13 zortzireneko pleguk 208 orrialde betetzen dituzte, azken orrialdeak plegu erdi batez osotua direlarik.

Diogun guzti honen erakusgarri zeinadurak beraiek dira; bai lehenean liburuan zein bigarrean, zortzireneko pleguetan A , A_2 , A_3 , A_4 gisako lau zeinadura daukagu pleguko, plegu erdiraino lau orrialde ezpare baitira; lehenean liburuak azken aurreko plegu erdian (I_3 zeinadurak ez luke agertu behar bi orrialde ezpare izanik plegu erdiraino) eta bigarren liburuak azken plegu erdian bi dira zeinadurak. Eta lehenean liburuak amaieran bi orri dagoenez, zeinadura bat. Lehenean liburuak honetan ez da deirik falta, bai, ordea, F eta F_3 zeinadurak. E zeinadura jarri behar zuen tokian L agertzen da, gainera.

1627.eko edizio honen bigarren liburuan 9. orrialdean agertu behar ez lukeen E agertzen da, eta 163. orrialdean L_2 jarri behar zuen tokian L jartzen du. Plegu amaierako deiak ere hamairuak daude.

1669.EKO EDIZIOA

1669.eko *Manual devotioñezcoa*-ren lehenean liburuak zortzireneko 17 plegu erdi osotua dago (136 zenbakia duen orrialderaino). Hasieran bi orri sartu dira

23 Orrialde hauetan Gazteluko Erresumetan liburuak, Felipe IIak 1558.ean pragmatika argitaratu zuenetik, jasan behar izan zuen zensura gogorragoaz mintzo da. Pragmatika honetan zerbait puntu interesgarri aurkituko ditugu:

«c) El impresor debía imprimir el texto sin la portada ni otros preliminares.

d) Concluida la impresión, debía presentar el libro al Consejo, para que el corrector oficial cotejase lo impreso con el texto ejemplar aprobado y rubricado, certificando su total adecuación al mismo, salvo las erratas advertidas.

f) Se imprimían la portada y demás preliminares, en los que, obligatoriamente, debían figurar la licencia; la tasa; el privilegio, si lo hubiere; el nombre del autor y del impresor, y el lugar donde se imprimió, a lo que se añadió en 1627 la exigencia legal de que figurase también el año de impresión.» «Las principales consecuencias externas que produjo dicha pragmática de 1558 en el libro son las siguientes:

a) Con el libro se inicia la foliación o paginación del libro y la serie alfabética de sus signaturas.

c) La portada y demás hojas preliminares forman uno o varios pliegos, con signaturas marcadas por calderones, asteriscos, cruces, etc., independientes de las del texto de la obra.»

arestian aipatu dugun arrazoiagatik. 137. orrialdeak S zeinadura darama, gero orrialde bat zuriz, eta hurrengoa bigarren liburuko azala (lehen orrialdea, beraz) da.

Bigarren liburuko 15. orrialdeak C zeinadura darama (aurrekoak «çure» deia). 15. orrialde honetan hasi eta 214.era (azken orrialde hau zuriz dago) 200 orrialde daude, zortzireneko 25 plegu erdi osotzen dituztenak.

Bigarren liburuko aurreko 14 orrialdeak gelditzen zaizkigu; hauek dira orrialdeotan agertzen diren zeinadura eta deiak:

zeinadura edo deia	orrialdea
othoitçaren	6
B	7
çure	14

Hauek honela, ezin dugu inolako plegurik eratu eta zeinadurak ez dira behar tokian jarriak. Baina 14 orrialde hauei lehen liburuko azken bi orrialdeak gehitzen badizkiogu (137. orrialdea eta hurrengoa, zuriz dagoena), orduan, zortzireneko bi plegu erdi ditugu, lehen edizioiko 137. orrialdetik (S zeinaduraduna) bigarren liburuko 6. orrialdera («othoitçaren» deia daramana) doana bat, eta bigarrena 7. orrialdean hasi eta 14. orrialderaino doana («çure» deia duena). Honela, bada, obra osoa zortzireneko 44 plegu erdi eta hasierako bi orriez osotua litzateke, 356 orrialde guztira.

Dena den, 1669.eko edizio honetako bi liburuetako zeinadura sistema ez da bat ere erregularra.

Edizio honetako lehen liburuko lehen bost pleguetan (40 zenbakia duen orri-alderaino), lau zeinadura agertzen dira, plegu erdi batek bi besterik behar ez dituenean. A₃, A₄, B₄, C₃, C₄, D₃, E₃ eta E₄ zeinadurek, bada, ez lukete agertu beharko. Zein izan daiteke agertzearen arrazoa? Gure ustez, ezin izan dira zortzireneko plegu erdiak eratu eta zortzireneko lau orri solte josiz koadernotxo bat egin eta orrialde ezpare guztietan zeinadura jarri behar izan da, horrela lau agertzen direlarik eta ez bi. Gainera, B dago C-ren ordez eta O O₂-renez.

Bigarren liburuko lehen pleguan ez dago zeinadurarik, esan dugunez, gure ustetan plegua lehen liburuko azken bi orrialdeetan hasten baita. G₂ zeinadura eta 86 orrialdeko deia falta dira.

Bestalde, zortzireneko plegu erdiak izan eta plegu erdiraino bi zeinadura besterik behar ez direnez, E₃, E₄, L₃ eta S₃ zeinadurak soberan leudeke. Hemen ere, gure ustez, arazoren baten aurrean izan zen moldiztegian inprimatzailea, papera aprobetxatu beharreko arazoa ziurren. Beraz, baliteke E zeinaduraren kasu hau ere aipatu berri dugun lehen liburuko lehen bost pleguen kasua izatea; L eta S zeinadurena, aldiz —baldin eta L₄ eta S₄ jatorriz izan eta galdu ez badira—, honela azal daiteke: koadernotxo bat zortzireneko bi orrialde solte eta plegu lauren batez osatua. Lehen bi orrialde solteek L eta L₂ (edo S eta S₂) zeinadura eramango lukete,

hurrenez hurren, eta plegu laurenak L_3 (edo S_3) zeinadura. Hori da, behintzat, bururatzen zaigun erantzun bakarra.

Amaitzeko zera komentatu, Vinsonek (1891-8: 541) eskuetan izan dituen edizio honetako aleetako bigarren liburuak Q zeinadura bi aldiz duela dioela, 119 eta 127 orrialdeetan hain zuzen. Guk eskuartean erabili izan dugun Hordagoren argitarapenak Q zeinadura hori 119. orrialdean darama, baina jarraiko pleguak (127-134 or.) ez darama Q hori berriro; ez darama zeinadurarik eta hurrengo R zeinadura da, 135 orrialdean jarraitzen duena.

Chicagoko Newberry Library-ko Luis Luziano Bonaparte Printzearen funtsetatik bidali diguten aleak eta Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean dagoenak, ordea, Vinsonek azertu dituenak bezala, Q eta Q_2 zeinadurak bi aldiz errepikatzen dituzte 119, 121, 127 eta 129. orrialdeetan.

4. Hondar hitzak

Manual devotioñezcoaren bi lekukotasun desberdinak dira oso jagonak eta hauetan ez ditugu *Noelacen* zenbait edizioetan eta *Eliçara erabiltecoaren* 1665.ekoaren hutsak aurkituko.

Bakoitzak jarraitu duen bidea argitzerakoak edo *stemmara* heldu nahi izatekotan, haintzat hartzekoak:

1) 1669.eko testimonioa ez da gehiegi aldentzen 1627.ekotik, ez tipografia ez aldakien aldetik. Eranskinetan ikusiko dugun bezala, aldaki gehienak erreforma ortografikoari edo puntuazio markei dagozkie eta adierazgarri diren huts edo desberdintasun gutxi daude. Beraz, suposa liteke 1699.eko edizioak aurrekoa, 1627.ekoa, irakurri duela eta grafia eta puntuazio kontuak *zuzenduta*, aurrekoa bezalakoxe edizioa dugula. Zeharkako tradizioari eskeini diogun atalean azaldu dugun atalean azaldu dugun 'hangaia' hitzaren kontuak eta bigarren testimonio hau ere Milangesdarrenean, Bordelen, inprimatua izanak bide hau indartuko lukete.

2) Azken orrialdeotan azaldu ditugun adibideek, ordea, 1669.eko testimonioak bere bidea jarraitu duela pentsaraz liezagukete. Desberdintasun edo aldaki hauek, halere, azalgarri dira testimonio hau norbaitek berrikusia eta aurrekoak izan dituen akatsak zuzendua izan bada. Kasu honetan aieru bidez edo orijinala aurrean dela zuzendu direla pentsatu beharko genuke. Bi posibilitateak dira haintzat hartzekoak, gure ustez. Posiblea da norbaitek lehen testimonioa berrirakurri, zuzendu eta bigarrena aldaketa hauek dituela ageri izana.

Ikusi dugun zeinaduren kontua dela eta, aipagarria da bigarren liburuko lehen hamalau orrialde eta lehen liburuko azken biei buruzko kontua. Izan ere, hamasei orrialde hauek plegu bat osotzen baldin badute, gurera heldu diren lekukotasunetako bi atalak edo liburuak batean bilduak agertu dira.

5. Bibliografia

5.1. Lehen mailako iturriak

ETCHEBERRI, J., 1627, *Manual devotioñezcoa*, Bordelen, Gvillen Millanges Erregueren Imprimatçaillearenean, M.DC. XXVII.

———, 1645, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Bordelen, Gvillen Milanges Erregueren Imprimatçaillea baithan.

———, 1666, *Eliçara erabiltececo liburua*, Bigarren aldiari Imprimatua, Paven, Joannes Desbaratz Erregueren Imprimatçaillea Baithan.

———, 1669, *Manual devotioñezcoa*, Bordelen, I. Mongiron Millanges Erregueren Imprimatçaillearenean, M.DC. LXIX.

MANUAL DEVOTIOÑEZCOA-ren parteak:

Gure Herria, 1921a, "Itsasturi", I, 192. or.

Gure Herria, 1921b, "Manuel devotioñezcoa", I, 492-493. or.

Gure Herria, 1922, "Herioa", II, 391. or.

Gure Herria, 1929, "Haur Hipientzat", "Balea zaleen othoitzak", IX, 158-161. or.

5.2. Ikerketak

AKESOLO, L., LAFITTE, P., SOTA, M. De la, 1980, *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca*. Volumen V, Primera edición, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

———, 1990, "Etxeberri Ziburukoaren bertso bi argitzen", *Karmel*, 192, 70-76. or.

ALTUNA, P., 1981, *Joannes Etxeberri Ziburukoa, Manual Devotioñezcoa, Edizio kritikoa*, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y Ediciones Mensajero, Bilbao.

———, "Euskal Filologiazkoak, nahas-mahas", *Euskera* XXXIV, 170-174. or.

ATUTXA, I., 1999: "Joannes Etxeberri Ziburukoa: Noelac eta testu kritika". *LAPURDUM IV*, UMR 5478 du CNRS.233-312. or.

———, 2001: "Joannes Etxeberriren Eliçara erabiltececo liburua-z". *LAPURDUM VI*, UMR 5478 du CNRS. 21-62. or.

BLECUA, A., 1988: *Manual de crítica textual*, Editorial Castalia.

BILBAO, J., 1973, *Eusko Bibliografia. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Cuerpo C. Vol. III. Diassarry-Garriga. Editorial Auñamendi.

CIRIQUIAIN-GAIZTARRO, M., 1961, *Los vascos en la pesca de la ballena*. Biblioteca Bascongada de los Amigos del País.

DESGRAVES, L., 1971, *Les livres imprimés à Bordeaux au XVII^e siècle*, Centre de Recherches d'Histoire et de Philologie, Genève, Librairie Droz, 11, rue Massot.

———, 1995, Dictionnaire des imprimeurs, libraires et relieurs de Bordeaux et de la Gironde (XV^e-XVIII^e siècles). Baden-Baden, Koerner.

ETXENAGUSIA, K., 1981, *Iparraldeko Euskal Idazleak*, Labairu Ikastegia, Bilbo.

GARATE, J., 1963: "El turón de Etcheberri-Ziburu en 1627", *BSVAP*, XIX, 281-282. or.

GONZALEZ DE AMEZUA, 1951, "Cómo se hacía un libro en nuestro Siglo de Oro", *Opúsculos Histórico-Literarios*, Madrid, CSIC, I, pp. 331-373.

HUMBOLDT, W., 1816, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, Berlin.

LABADIE, E., 1913, *L'imprimerie bordelaise et les livres basques*, Pau, G. Lescher-Moutoué, imprimeur, 11 rue de la Préfecture.

LAFITTE, P., 1931, *Euskaldunen Lorategia, XVIgarren mendetik hunetako liburuetarik bildua*. Lehen zatia (1645-1800), Baionan, Lasserre Liburutegian salgai, 20. Gambetta karrikan.

LAKARRA J. A.: 1988: «Testukritikaz: I. Stemmarantz», in Lakarra (arg.), 1988a. 103-139 or.

LARRAMENDI, M., 1853, *Diccionario Trilingüe Castellano, Bascuence y Latín*, Nueva Edición publicada por don Pío de Zuazua, San Sebastián.

———, 1984, *El imposible vencido. ARTE de la lengua Bascongada*, Editorial Amigos del libro.

LECUONA, M., 1961, "Transcripciones y traducciones de viejos textos vascos, *BSVAP*, XVII, 371-375. or.

MADARIAGA, X., MUR, P., ZALDUA, I., 1995, *Artes Gráficas. Una introducción a la Historia de la Imprenta en el País Vasco*.

MICHEL, F., 1847, *Proverbes basques d'Oihenart*.

———, 1857, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Paris, Firmin Didot Frères, Fils et Cie., Londres, William Norgate.

MICHELENA, L., 1988a, *Euskal idazlan guztiak III*. Liburuak II. Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, 23. alea.

———, 1988b, *Euskal idazlan guztiak IV*. Literaturaren inguruan I. Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, 24. alea.

MOLL, J., 1979, "Problemas bibliográficos del libro español en el Siglo de Oro". *Boletín de la Real Academia Española*. Tomo LIX-Cuaderno CCXVI, Enero-Abril 1979, 49-107. or.

———, 1984 (edit.), *Institución y origen del arte de la imprenta y reglas generales para los componedores por Alonso Victor de Paredes, profesor del mismo arte*, El Crotalón, Madrid.

MUJIKA, J.A., 1988, "Etxeberri Ziburukoaren testu ilun baten inguruan", *Iker*, 6, 301-310. or.

MUJIKA, L.M., 1979, *Historia de la literatura euskérica*. L. Haranburu Editor.

ONAINDIA, S., 1954, *Milla euskal-olerki eder*, Karmeldar Idaztiak, Larrea-Amorebieta.

ORPUSTAN, J.-B., 1999, "Un type de 'paratexte' dans la littérature basque de la première moitié du XVI^e siècle: les dédicaces", *LAPURDUM IV*, UMR 5478 du CNRS, 9-37. or.

OYHARÇABAL, B., 1999a, "Ecrits basques et diglossie dans le Labourd du XVII^e siècle: au sujet de l'interprétation de la dédicace d'Etcheberri de Ciboure à C. Du Rueil (1627)". *Eugène Goyheneche Omenaldia. Hommage*. Eusko Ikaskuntza. 201-214. or.

———, 1999b, "Les prologues autoriaux des ouvrages basques des XVI^e et XVII^e siècles", *LAPURDUM IV*, UMR 5478 du CNRS. 39-93. or.

———, 2001, "Status et évolution des lettres basques durant les XVI^e et XVII^e siècles", *LAPURDUM VI*, UMR 5478 du CNRS. 219-288. or.

PEILLEN, T., 1983, *Jusef Egiategi. Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia*. (1785). Euskaltzaindia. Bilbao.

PIERQUIN DE GEMBLoux, C. Ch., 1858a, *Histoire Littéraire, philologique et bibliographique des patois*, Paris, Auguste Aubry, Libraire editeur (nouvelle édition).

———, 1858b, *Bibliographie basque. Hommage à son altesse Le Prince Louis-Lucien Bonaparte*.

SORARRAIN, G. de, 1984, *Catálogo de obras euskaras*, Caja de Ahorros Vizcaína, Colección bibliográfica, Serie Mayor, 3.

VINSON, J., 1891, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Paris, 1891, *Suppléments et compléments*, Paris, 1898, Colección Bibliográfica, Serie Mayor I* y I** (respectivamente), Caja Ahorros Vizcaína.